



# Murgildu San Pedro Jaietan!

T.FERNANDEZ BILDUMA



ASEGURUAK  
**Ges**



*Ondo pasa jaietan!!*

*Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia*

- ✓ Etxeko aseguruak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Kotxeak
- ✓ Dendak
- ✓ Erretiroak
- ✓ Istripuak
- ✓ Enpresak
- ✓ Bizitza aseguruak
- ✓ Eta gehiago!







*Erabateko gutizia aurkituko duzue  
gure produktuetan!*



## Gure ogiak:

Cristal  
Molde Cristal  
Parisien  
Txabola  
Mendiko  
Kurkuma  
Leña ligth  
Espelta  
Vital  
Artoa  
Salud  
Artoa zerealekin  
Aleman  
Molino  
Verde  
Espelta zerealekin  
Ogicol  
Kurkuma, intxaurrek  
eta mahaspasak



*Gure ogi FAMATUENA  
CRISTAL OGIA*



*Bila bazabiltza, hementxe duzu*

## GURE KALITATEA DASTATU

*Ondo pasa jaietan!*



gure BETIKO kafea



**Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA**



# Has dadila festa!

Iritsi dira San Pedro jaiak. Konturatu gabe iritsi zaizkigu parrandarako egunak. Sorgin Jaiak bereziak izango dira aurten, 15. urteurrena ospatuko dute jai alternatiboek eta egitarau ofizialarekin batera hasiko dira gaur. Blusa koloretsuak soinean herritarrak kalera aterako dira eta larunbata arte indarrak neurtu beharko dituzte jai egitarau oparoaz gozatzeko.

Azken urteetan bezala, eguerditik aurrera festa lehertuko da haurren txupinazoarekin batera eta horrela jai giroa nagusituko da. Izan ere, jarraian iritsiko dira jaietako ekintza nagusietakoak diren Sorgin Dantza eta txupinazoak, aurten bi, ofiziala eta Sorgin Jaietakoak. Danborradaren gaua ere izango da lehenengo hau. Esan behar da Okendo plaza izango dela festen gune nagusi.

Egitarau oparoa dugu gaurtik eta larunbata bitartean. Sorgin Jaioek txosna Okendo plazan izango dute eta plazako agerlekua elkarbanatuko dute Udalak eta Ttakunek antolatutako ekintzekin. Udalak aurten Landaberri omenduko du bere 50. urteurrenean eta bertako ordezkariak egokituko zaie bai haurren txupina udaletxe zaharretik 12:00etan zein arratsaldekoa, udaletxe berrietik 19:00etan jaurtitzera. Beranduago egingo dute Sorgin Jaiko kideek, 21:30ean Okendon bertan.

Herriko kaleak girotuko dituzte txaranga eta buruhandiek, Sorgin guneak, danborradak, zikiro-afariak,



barrakek, dantzaldiek... Baina batez ere herritarrok emango diegu kolorea jaiari. Bost egunez etxetik kanpo egongo gara, kaleak hartuko ditugu eta hamaika ekintzetan, egitarau ofizial zein alternatiboen baitan antolatutakoetan, parte hartuko dugu.

Eskaintza musikalaren barruan, gaur danborradaren ostean, Sorgin Jaiek antolatuta Izeberg eta Erokomeri ari-tuko dira. Sorgin Jaietako egitaraukoak dira ere biharko eta ostegunekoak, Hilotz, Bolbora eta Bar Remigio bihar, etzi ostegunekoak Gozategi. Ostiraleko gaua izango da parranda gau luzeena, Doctor Deseo igoko da plazako agertokira gauerdian eta ondoren Psycho-Clown 2:00etan eta Kolpez Blai 5:00etan, ikuskizunak izango dira. Larunbatean jaiari amaiera borobila emateko, Ken Zazpik kontzertua eskainiko du eta 2:00ak aldera, Sorgin Jaian eskutik iritsiko da jaiari amaiera Bad Sound System taldearen doinuekin.

Kontzertuez gain, txikientzako jolasak zein dantzaldiak izango dira herriko plaza ezberdinetan. Aurtengoan berreskuratu dira soka-muturra eta bigantxak. Beraz, herritar guztientzako hamaika aukera festaz gozatzeko.

Gora San Pedro Jaiak!

hurrengo  
zenbakia

txintzarri

Uztailaren 4an

2016ko San Pedro festetako argazkiak

## Diruz laguntzen duten erakundeak

### Babeslea



### Laguntzailea



Txintzarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

### Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

### txintzarri

#### Erredakzioa:

Majder Azurmendi, Nerea Eizagirre, Maddi Noriega, Iñigo Gonzalez.

txintzarri@txintzarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Mainer Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artebe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz



Landaberri ikastola Omendua

# 50 urte Lasarte-Oria hezten

Irailean ospatuko du urteurrena, baina bien bitartean Udalaren omenaldia jasoko du

*1966an, euskara eta euskal kulturaren egoeraz kezkatuta, guraso, gazte eta herritar talde batek Lasarten ikastola sortzea erabaki zuen. Orduan, 40 ikasleekin hasi zen lanean 'Lander' eliz eskola Andre Joakina etxean. 50 urteren ostean, ikastola eraldatu eta ikasle kopurua handitu da, egun 1.279 dira. Milaka izan dira Landaberri ikastolako geletan ikasi duten herritarrak. Horregatik, aurten San Pedro Jaietako omendua da Landaberri ikastola.*

Nerea EIZAGIRRE

50 urte dira Landaberri ikastolak bere lehen pausoak eman zituenetik. Hori dela eta, garai ezberdinak bitziko irakasleekin bildu gara: Maria Dolores Iturbe, Prontxio Elorza, Juan Seguro eta Pako Bergara, baita ikasle izan eta gaur egun guraso den Haizea Elizondokorekin ere.

Maria Dolores bizi izan zituen lehen urte haiek, baita Prontxioren emazte izandako Arantxa Mendizabalek ere.

Landaberri ikastolaren hazia 'Gure Etxea' tabernan egin ziren bilerak ditugu. Maria Dolores gogoratzen duen modura, "ikasolaren beharra zegoen. Lasarteko jende euskalduna mugitzen hasi zen eta gazteek ere lagundu zuten horretan".

Eskaera horren arrazoieta-ko bat, Prontxioren ustez, "herri baten berreskurapena

lortu nahi zela da. Gerrate bat pasata eta nolabait esanda iluntasunean egon eta gero, ez literaturan ez elkarte mailan ezer egiteko aukerarik gabe. Hori lozorroan zegoen herria zen eta esnatzen joan zen. Eskaera egon zen eta lanean jarri ziren".

Tabernako bilera haien ostean, lanean jarri ziren.

Juan Seguroak aipatzen duenez, "Landaberriko 25. urteurreko liburuan irakurritakoaren arabera, ordurako inguruko herrietan ikastolak hasiak ziren eta Donostia edo Hernanira joan ziren informazio eske, funtzionamendua etab. jakiteko".

Leku bila ere ibili ziren. Lehenik Goikaleko Aizpurua Enea etxean eta gerora Andre Joakina Enean.

Bigarren pausoa irakasleak bilatzea izan zen. "Bilatzen ari zirela, halako tokitan badago neska bat eta Arantxa Mendi-

zabal ekarri zuten. Bitartean, ume bila ere ibili ziren".

Honela jarri zen martxan 'Lander' eliz eskola.

Maria Doloresek gogora ekartzen duenez, "Arantxa zen titularra eta ni laguntzailea. 40 hurreko taldea genuen. 39 euskaldun eta bat ez zekiena".

"Denak txikiak ziren, adin berdinekoak. Orduan, lau urterekin hasten zen gainera. 3 urtekoak urtera hasi ziren eta pixkanaka beste urteetakoak ere gehitzen joan ziren," atxiki du.

## Irakasle bakarra

Tituluduna bakarra zela lanean egon ziren urte batzuetan eta Maria Doloresek gogoratu legez, "inspektzioa zegoela, besteak mendira joaten ginen eta harek esango zuen, hemen ez dago inoiz umerik. Bazekiten nola genbiltzan eta mehatxak ere egon ziren itxiko zutela. Urte horiek oso gogorrak izan ziren. Bai guraso, irakle eta denontzat, beldurra genuen. Hau lortu dugu, martxan goaz eta..."

Hala ere, pixkanaka zeudenek ahalegina egin zuten hau eskuratzeko eta tituludunak ere etorri ziren. Prontxiok seriedadea zegoela adierazi du: "Irakasle eskola zegoen, bi



Andre Joakina Enea eraikuntza izan zen urte askotan txikien ikastola. LANDABERRI IK.

urte egiten ziren eta gero beste bat praktiketan. Baina beharra zegoenez, ikasketak amaitu eta berehala lanean hasten ziren. Titulua bazenuen nahikoa zen. Ez zenuen adaptaziorik".

Maria Doloresek azaldu legez, "ni goizean gelan egoten nintzen eta arratsaldeetan gau eskolara joaten nintzen.

Gai ugari izaten genituen. Gainera, ikastaroak ere egiten genituen eta horrekin balio zuela esaten zuten".

"Etengabeko prestakuntza zegoen orduan", gaineratu du Prontxiok.

## Hazkundera

Ikas maila eta ikasle kopurua handitzen joan zen eta Andre



**ANORGA TXIBI S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

*Ondo pasa San Pedro jaietan!!*

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45



**SUGATE**  
SUKALDEAK

*Ondo pasa festetan!*

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak

Marka guztietako etxetresna elektrikoak

**Pintore Kalea 5 - Lasarte-Oria**  
**Tel. 943 36 14 71**  
**www.sugate.net**



**Etorri gurekin**  
kafea hartzera  
gosaltzera...



**Pastelak**  
**Opilak**  
**Pastak**  
**Ogia**  
**Bonboiak**

...

**OSO ONDO PASA**  
**HERRIKO JAIETAN!**



Hipodromo etorbidea 3  
Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366176  
labegoxo@euskalnet.net



Joakina Enean "hasieran nahi-ko leku zegoen, baina gelarik gabe geratu ginen".

Honela, herriko beste etxebizitza edo lokaletan hasi ziren lanean komentu ondoan, eskola berrietan, Uistin kalean, Barbe etxean...

Orduan, Lasarte-Oria bitan banatua zegoela gogora ekartzen du Maria Doloresek, "Urnieta eta Hernani zegoen zatitua eta ikasleak ere hala zeuden. Ni Uistinen nengoen Hernani aldekoekin eta Goikalen Maria Angeles Urnietakoe-kin".

Baina haur kopurua hazten joan zen eta handientzat Usurbilgo Kalear auzoan lortu zen lekua.

Prontxiok azaltzen duenez, "Lasarte berezia zen orduan, kontuan izan behar da egunero ez dakit zenbat autobus ateratzen zirela Donostiko ikastetxeetara. Jendeak ez zuen fedea eskola publiko batean, ez eta ikastola batean ere. Konfiantza gehiengoak, %90ak ikastetxe pribatu eta erlijioetan zuen".

Eta "eskola mapa ere aldatzen joan da, berez, ez du inork inposatu. Egin den lanarengatik, pixkanaka saretzen joan da behar bat. Publikoa euskaldundu beharra ere ikusi da", atxiki du.

Pakok ikasle kopuruaren hazkunde handia izan dela azpimarratzen du. "Txanpinoi moduko hazkunde izan da. Ikastolak hasieratik izan duen euskararen atxikimenduak herritarren onarpena izan du. Hori Landaberriren matrikula-

zioetan islatu da. Egun DBH-n topera gaude. Gainera, hasi nintzenean bost eskola publiko zeuden egun bi geratzen dira", gaineratu du.

#### Bateratzeak

Pakok Landaberri BHI eta Lasarte-Usurbil Institutuaren fusioa aipatu du azal-azaletik. Baina hau ez da Landaberri bere historian jasan duen fusio bakarra izan.

70. hamarkadan, 'Lander' ikastolak eta Usurbilgo 'Luberri'-k bat egin zuten eta orduan hartu zuen ikastolak 'Landaberri' izena.

Juanek azaldu modura, "Usurbilgo Luberri ikastolak Goiko mailak ireki behar zituen eta arazoak zituen. Horri irtenbidea emateko eta beste hainbat gauzengatik batzea erabaki zen".

"Landaberri kooperatiba sortu zen orduan. Gurasoak akziodun egin ziren eta elkarrekin abiatu ziren", aipatu du Prontxiok.

Baina ezin ziren gazteak hain sakabanatuak izan eta ikastolak bere eraikin propioa egitea erabaki zuen. Buelta eta negoziaketa askoren ostean, Zubietan lur sail batzuk eskuratu zituen ikastolak.

Bertan auzolanaren bitartez, eraiki zen egun LHko eraikina dena.

"Larunbatero lanera joaten ginen bertan eta dirua ere. Irakasleek ere gutxiago kobratzen ginen. Ez ziguten eman beharrekoa ematen baina konformatzen ginen. Gurea bezala sentitzen ginen,"



Maria Dolores Iturbe lehen urteetako ikasle taldeetako batekin.

LANDABERRI IK.

gogoratzen du Mari Doloresek. "Ez zen lanaren kuantifikazioari egin. Ez zen zenbat lan egin genuen kontabilizatu", gehitu du.

Bigarren fusioa 1994an sinatu zen. Honetan Garaikoa eta Usurbilgo Ageri-Alde ikastolak batu ziren Landaberriekin. Honi esker, txikiak Garaikoa eraikerera eta handienak DBHkoak egun Landaberri BHI dena leku aldatu zituzten.

Juanek azaldu legez, "Usurbilgo Ageri-Alde ikastola gutxitzen joan zen eta bateratzean irakasle eta ikasleak etorri ziren. Beste lan egiteko modu batetik etorri ziren eta txoke txiki bat egon zen".

Gainera, eskola mapa berria egin zen eta ikastola publiko bihurtu zen. Honek ere beldurrak sortu zituen.

Maria Doloresek aipatzen duenez, "guraso askok beldurra zuten. Baina nik esaten nien gu pertsona berdinak gara eta beti nahi izan dugu denak dena delakoagatik, baina berdin egingo dugu lan".

Pakok azpimarratzen duenez, "puntu garrantzitsua izan zen. Nik erronka bezala ikusi nuen. Euskaldunak euskalduntzea oso erraza zen. Euskara zabaltzea helburua bada, jende gehiago egotea ez zentzuarra. Agian maila jaitziko zuen. Baina kale neurketetan egun Lasarte-Oria aldaketa dagoela ikusten da eta Landaberri horren erantzule dela uste dut. Egin dituen apustuegatik".

Pakok ohartarazten duenez, B eredia ezarri zenean errezeloak sortu ziren ere. "Baina etorkin eta immigrazio kopuru horrekin jolatu behar da edo landu behar dugu. Hori irabazten goazen heinean, herri euskaldunagoa egingo dugu".

"Gaur egun ditugunak bezala. Baina erronka modura hartu behar da hau ere. Onuragarria izango dela uste dut. Beldur gutxiago izan behar da", gaineratu du.

Eta hurrengo ikasturtetik aurrera emango den bateratzea azaltzen digu: "Arrazoa matrikulazioan ematen zen desoreka da, bat lepo dugu eta besteak lekua soberan du. Aparte ez dut uste ona denik,

bi ikastetxe egitea eta horrek sortzen duena, batzuk batekoak, besteak beste. Hori ezabatzeko aukera dago eta gainera anitzagoak izango gara. Irakasleak ere anitzak gara. Ikusi beharko da zer hartzen duen Landaberri. Positiboa izango dela uste dut. Baina hau nire iritzia da".


#### Metodologia

Hori guztiaz gai, ikastolaren metodologiaz ere jardun gara. Eskolako hasieran hainbat mesfidantza sortu zituen Maria Doloresek gogoratzen duen modura.

"Lehenengo harritzen zuena zen gela hutsik egotea. Fitxak egin behar baziren apal batean egiten genituen edo arbelean. Inongo libururik eta ezer gabe. Irakurketa eta idazkerari ematen zioten beti garrantzia gehien eta hemen beranduago hasten zirenez, konparaketak egiten zituzten".

"Haurrek jolastera etortzen zirela esaten zuten. Baina jolasaren bidez lantzen ginen guztia. Lantzen ari zirenen arabera, 'eraikuntzak egiten ari dira, tamainak eta koloreak lantzen ditugu', esan behar zenien gurasoei. Azaldu behar zenuen, bestela ez zuten ulertzen nola haurrek ikasi ahal zuten. Zenbait jende hemendik atera eta beste ikastetxeetara eramaten zituzten haurrak".

Prontxiok "haurra zen helburu bere bilakaera eta horrek ere talkak sortzen zituen beste




Zubietako eraikina eraikitzeko auzolana egin zen. Guraso, irakasle eta gazteek jarri zuten haien harritzoa. LANDABERRI IK.

# MAITE

ESTETIKA ARETOA

Orutegi malgua daukagu  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

 Ondo pasa herriko jaietan!

*Eskaintza  
rabala  
estetika  
zerbitzuetan*

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektrikoa
- Depilazioa argizari bero eta hotzarekin
- Fotodepilazioa argi pulsatuarekin
- Betileen permanentea eta tindatzea
- Ultramorerik gabeko beltzarantzea
- Solariuma

**LIBRERIA MAITE**



*Eguberri on!*

Geltoki 12 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372791





Bigarren bateratzea egin ostean, Landaberriko 6 eta 7 mailako gaztetxoeen irteera Andatzara. LANDABERRI IK.

ikastetxeekin konparatuz. Lantzeko garaia desberdina zen. Horrek ere arazoak sortu zituen”, gehitzen du.

Eta “haurra zen ere abiapuntua; zer nahi zuen, beti galdetzen zenion. Klasearen dinamika hortik joaten zen, baina lehenegotan horrela egiten genuen”, azpimarratzen du.

Hala ere, Maria Doloresek adierazi legez, “nahiz eta erreformak egon, lanean berdin jarraitu. Nik lehen eta orain berdin egin dut umeekin”.

Juanek “ikastolaren filosofia berdina da, baina egiteko moduak egokitu behar dituzu”, zehazten du.

Pakok aipatzen duenez, “gauzak arautuak ez egotea esperimentaziorako tartea ematen zuen. Zuk arakatu behar zenuen. Gaur egun arautuago dago. Malgutasuna galdu egiten da”.

Honetaz gain, materiala prestatzerako orduan, lehen lan gehiago egin behar zela gogora ekartzen du Maria Doloresek. “Alderdi horretatik lan handia izan zen, testu libururik ez zegoen eta zatiak hartzen joan behar zinen. Zeuden gauzeekin, fitzak bana banan egiten genituen, gero inprenta ekarri zuten eta fotokopidora izan genuenean primerakoa izan zen. Haur Hezkuntzak gaur ere horrela funtzionatzen du”.

Haizea Elizondok tailer pila egiten zituztela dakar mahai gainera: “Komikiak egi-

ten genituen, denetarik egiten genuen, irteerak...”.

Eta Maria Doloresek irteeretan ere gauza pila ikasi daitzekela adierazten du. “Irteera bat izaten zen, esate baterako, 5 urterekin Azpeitira eta Loiolara joan eta bertako errota ikustea”.

Prontxiok hasierako irteerak oroitzen ditu: “Gaur egun aukera asko daude. Baina orduan zuk landu behar zenuen. Hau erakutsi nahi diet eta nora joan gaitezke”.

#### Integrazioa

Tailerren harira, “Haizeak gogoratzen duenez, gu B erdukoekin nahasten ginen ikasgai askotan”.

Juan Segurolak ekintza hori integratzeko pauso bezala egiten zela ematen du jakitera. “Azkenean helburua zen guztiak euskaldun identifikazio bat izatea. Maila ezberdinak ere nahasten ziren”.

Maria Doloresek zehazten duenez, “esperientzia asko egin ziren horrelakoak eta gaur egun lehenengo mailan egiten da nahasketa. HH mailan bereziak daude, baina LH1ean taldez aldatzen dira”.

#### Guraso elkarte

Baina irakaslez gain, guraso elkartearen lana ere gogora ekarri behar da. Haien lan gogorrari esker ere egin du bere ibilbidea ikastolak.

Pakok gogoratu modura, “garai batean, irakaslegoaren soldatak, autobusak beldur,

kezka eta burukomin ugari eman zituen”.

Maria Doloresek Zubietako eraikina egin ostean, “edozein gauza zenuela bilerak egiten genituen. Irakasle, guraso... guztiak elkarrekin. Oso familiarak ziren. Eta afariak ere egiten ziren”, gogoratzen du.

Pakok azpimarratzen duenez, “beti egon da guraso multzo bat inplikatu eta ikastolari babesa eskaini eta irakasleekin batera lan egin duena. Hori moztzen bada gaizki goaz”.

#### Erronka

Etorkizunari buruz ere hitz egin dugu haiekin eta erronka batzuk aipatu dituzte. Hala nola, euskararen erabilera dakarte mahai gainera.

Maria Doloresek adierazten duenez, “erabilera betiko kezka izan da. Bi hizkuntzak menderatzen dituzte eta giroa erdaldunagoa da. Gelan euskaraz egiten dute eta patioan erderaz hitz egiten dute haien artean. Gelak ere ez dira lehen bezain euskaldunak, nahasketa gehiago dago. Ahalegin guztiak egiten ditugu baina ezin erabilera handitu”.

Honen harira, Juanek dio lehen ere gertatzen zela hori: “Taldeak daude eta batzuk besteek baino gehiago egiten dute gazteleraz. Baina orokorrean arazo hori dago”.

Haizearen iritiz, “ikastola oso ezberdin dago eta gero eta gaztelera gehiago entzuten da bertan. Orain haurrak ikastolara joatea da gurasoek nahi

dute baina zertarako? Haurrek gero euskaraz egiten ez badute”.

“Hori ere badago”, moztu du Juanek. “Aztertu beharko da zergatik eramaten duten guraso horiek umea ikastolara. Baina identifikazio puntu bat ere badago. ‘Nire seme-alabentzat askoz hobea da’, pentsatzen dute. Baina gero guk neurtu nahi ditugun gauzetan ez dugu lortzen aurrerapenik.”

Era berean, Haizeak ikastolaren izpiritua berreskuratu behar dela uste du. “Nahiz eta publikatu, ikastola izena mantendu zen eta horrek esan nahi duena ere mantendu beharko litzateke”.

Juanek “‘haurra ikastolara eramaten dut’ esateak konsekuentzia bat izan beharko luke, ezta?”, atxikitzen du.

Maria Doloresek aipatzen duenez, “lehen gurea sentitzen genuen”.

Pakoren aburuz, gazteen motibazioa ere erronka bat da. “Batzuk besteek baino motibazio gehiago behar dute. Gizartea ere aldatu da, familiak aldatu dira, gizarte konpetitibo batean bizi gara... Hori kudeatzen ikasi behar dute. Guk ere kudeatu behar dugu”.

#### 50. urteurrena

Hau guztiaz gain, aipatu legez, aurten ospakizun berezia du Landaberri ikastolak: bere urrezko ezteiak. Hori dela eta, urte berezi honetan batzorde bat eratu eta lanean dihardu ekintza ezberdinak antolatze-ko asmoarekin. Maria Dolores, Juan eta Haizea batzordeko kideak dira.

Pakok aipatu legez, DBHko kideek ere haien ordezkaria dute: “Askok galdetzen dute ea guk zergatik ospatzen dugun 50. urteurrena. Nik argi dudana da, bigarren hezkuntzako institutuak ere sorburu berdina izan zuela. 66an, sortu zeneko erreka horren jarraipena da. Guri ere dagokiogu horretan lan egitea”.

Aipatu digutenez, lan eta lan dabilta batzorde ezberdinak.

Oraingoz, logo berria eta urteurreneko abestia eman dira jakitera.

Abestia gainera, ikasturte amaierako jaialdian estreinatu zuten. Aitor Lasa eta Zigor Iriondo ikasle ohiek egindakoa da. “Aitorrek musika konposatu du eta hitzak Zigorrenak dira. Ikasle eta gurasoek grabatu dute, baita bideoklipa ere”.

Aipatu digutenez, “orain zabalduko da, asmoa da tabernetara eraman eta hauek jartztea. San Pedro Jaietan ere entzungo da; omenaldian, esate baterako, jarriko da”.

Honetaz gain, irailean bigarren hamabostaldian urteurrena ospatzeko hamaika ekintza prestatzen ari direla aurreratu dute.

“Hasieran ikasturte amaieran egitea pentsatu zen, jaialdiarekin batera, baina zerbait bereziagoa egin behar zela eta gauzak lasaiago egiteko irailerrako utzi dugu azkenean”, aipatu dute.

Jakitera eman dutenez, egunero zerbait egingo da: antzerki, ipuin, dantza, kontzertu, hitzaldi, erakusketa... “Adin guztiei begirako ekintzak dira eta amaitzeko bazkari bat egingo da”.

Honetan, Landaberri ikasi, irakatsi edo zerbait egin duten pertsonak batu nahi dituzte eta sortzaileei aipamen berezi bat egingo zaie.

Hamabostaldi honetako egitarau guztiz itxi gabe dago, baina iraila hasieran jakinaraziko dute.

#### Omenaldia

Baina iraila iritsi bitartean, San Pedro jaietan Lasarte-Oriako Udalaren omenaldia jasoko du Landaberri ikastolak. Gaur haur eta helduen txupinak botako dituzte eta bihar, Manuel Lekuona kultur etxean, omenaldia egingo da.

Hori dela eta, guztiek Landaberriko ikasle, ikasle-ohi, guraso edo irakasle izan direnei gonbita egiten diete ekintzetara hurbiltzeko.

“Guztiei irekiak diren ekintzak izango dira. Omenduak ez dira oholtzara edo txupinetan egongo direnak izango bakarrik, ikastolan egon direnek, hau antolatzen egon direnek edo lagundu dutenek ere. Denei esker joan da aurrera ikastola”, aipatu dute.

## Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurritan
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

[www.iurruzola-aroztegia.com](http://www.iurruzola-aroztegia.com)

## I. Urruzola aroztegia



[urruzolaaroztegia@gmail.com](mailto:urruzolaaroztegia@gmail.com)

943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



Ainhoa Iturrioz Kartelaren egilea

# “Sorpresa handia izan da lehiaketa irabaztea”

Ainhoa Iturrioz herritarrak 600 euroko saria eskuratu du jaietako kartelagatik

**Arkitektoa formazioz, Zitek akademian aritzen da klaseak ematen Ainhoa Iturrioz herritarra. Aurtengoan berea da San Pedro jaiak iragartzeko kartela. Lehenengo aldia izan da horrelako lehiaketa batean parte hartzen eta oso pozik azaldu da sariarekin. Akademiako bere ikasleei ilusio handia egin die Ainhoa komunikabideetan ikustea eta horregatik bakarrik merezi izan duela aitortzen du gazteak.**

Maidar AZURMENDI

**A**urtengo jaietako kartela berriz ere herritar batek egindakoa da. Ainhoa Iturrioz gazteak eskuratu du kartel onenaren saria. Herriko txoko guztietan jarri den irudiak festetako gune eta ekitaldi esanguratsuenak islatzea izan du helburu.

Iturriozek, aurkeztutako lan guztien artean maila ona zegoela uste du. 22 lanen artean egin behar izan zuten hautaketa Jaiak Batzordeko kideek.

**Nolatan aurkeztu zenuen kartela?**

Udalaren webgunean ikusi nuen lehiaketaren inguruko informazioa eta aurten probatzera animatu nintzen. Arkitektoa naiz eta diseinuan asko aritu behar izan naizenez kartela egitera animatu nintzen.

Marrazketa ere betidanik asko gustatzen zait eta probatzegatik egin nuen.

**Zer adierazi nahi zenuen irudiarekin? Koloreak aukatzeke garaian...**

Herriko festetako ekintza guztiak islatu nahi nituen nolabait. Festetako kartela izanda, kolore alaiak ere erabili nahi nituela argi neukan. Horrela herriko eraikin esan-

guratsuenak jarri ditut, dantzariak, erraldoiak...

**Zenbat denbora behar izan zenuen kartela egiteko?**

Egun batzuk dedikatu nizkion. Hala ere, denbora asko ez.

Hasieratik ideia oso garbi neukan, zer jarri nahi nuen kartelean banekien. Digitalki aurkezteko aukera zegoenez, lana bidali eta ia ahaztuta neukan. Probatzeagatik bidali nuen, ez neukan irabazteko itxaropenik egia esan behar badut.

**Lehenengo aldia da lan bat aurkezten duzula horrelako lehiaketa batean?**

Bai, lehenengo aldia da horrelako lehiaketa batean parte hartzen dudana. Irabazteak animoak eman dizkit gehiagotan saiatzeko.

Denbora izatekotan, datoren urterako beste kartel bat prestatuko dut ziur.

**Espero zenuen irabaztea?**

Ez, esan bezala proba bezala hartu nuen lehiaketa hau. Jakin nahi nuen ea gaitasuna neukan horrelako lan bat egiteko eta primeran atera zait. Irabazlea nintzela esateko deitu zidatenean sorpresa handia hartu nuen.

Ez nuen espero, etxean ere

ez nuen esan lehiaketara kartela aurkeztu nuela eta pentsa, zuzenean saria irabazi nuela esan nienean poz handia hartu zuten.

Zitek akademian klaseak ematen ditut eta TXINTXARRIKO argazkian ikusi nindutenean izugarritzko poza hartu zuten. Ni asko poztu nintzen baina ikasleei eragin dien ilusioa ikustea polita izan da. Beraientzat aukeren artean nirea zen kartel politena.

**Zer iruditu zaizkizu aurten aurkeztutako beste kartelak?**

Webgunean ikusi nituen beste lanak eta maila ona zegoela iruditu zitzaidan. Mota eta estilo ezberdinetako lanak zeuden. Nire ustez, batzuk erraz izan zitezkeen irabazleak. Oso lan politak zeuden.

**Lehia egon dela iruditzen zaizu?**

Bai, ez dut uste erabaki erraza izan denik. Esan bezala, nire ustez lan batzuk oso onak ziren. Herritarren iritzia kontutan hartu dutela esan zidaten udal ordezkariak, hala ere festak arloko batzordeak izan zuen azken hitza aukeraketan.

Nire ustez, herritarrek hautatu beharko lukete kartela urtero.

Agian zaila da Udalarentzat sistema egoki bat topatzea, baina herriko festak herritar guztienak dira eta gure hitzak nahikoa behar luke nire ustez.

**Zer egingo duzu sariarekin? 600 euroko saria da eta oso ondo etortzen da. Egia esan**



Guztira 22 lan aurkeztu ziren lehiaketara.

ez dut oraindik pentsatu zer egingo dudan diru horrekin. Ikasleekin ikasturteko azken azterketak prestatzen gabiltza eta oso lanpetuta nabil. Dena den, udarako oporretan gastatuko dut ziur.

**Nola biziko dituzu San Pedro jaiak? Zein izaten da festetako zure plan gustokoena?**

San Pedrotan lagunekin atera-

zea eta kalean disfrutatzea izaten da plana. Garai batean danborradan bandera eramaten atera nintzen baina dagoeneko ez dut parte hartzen.

Kalera atera eta festaz gozatuko dut. Herritarrentzat egun bereziak dira jaiak eta kalean hainbeste ordu egiten ditugunez, aspaldi ikusi gabeko lagunak eta ezagunak topatzeko egunak dira.

Ondo pasa festetan!



www.electricidadarregui.com

<http://tienda.electricidadarregui.com/es>

600 857 586

**Ezagutu gure UDAKO PRODUKTUEN eskaintza!**

- Haizagailuak
- Fiambrerak
- Termoak
- Zuku-makinak
- Bazkaria eramateko poltsak
- Eta gehiago!




Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Irati Hernandez ZoZongo!ko kidea

# “Emanaldi kañeroa izango da parrandan jarraitzeko”

Lehenengo aldiz joko du herritarrak Sanpedrotan ZoZongo!rekin

**ZoZongo!k bi ikuskizun eskainiko ditu larunbatean goizean goiz, 2:00etan 'Psicho-Clown' emanaldia eskainiko du Oken-do plazatik abiatuta eta 5:00etan 'Kolpez Blai!'. Honetan ari-tuko da Irati Hernandez herritarra. Berarentzat lehenengo aldia izango da herrian ZoZongo!rekin jotzen duela eta modu berezian biziko duela aitortzen du. Herritarrei biak ikustera gerturatzeko gonbita luzatzen die.**

Maiden AZURMENDI

Irati Hernandezentzat berezia izango da ostiraleko gaua, oraindik ez daki nola egingo duen goizeko 5:00etan jo eta 7:30ean Donostian lanean egoteko. Ametsa da 19 urteko gaztearentzat ZoZongo!n egotea eta ilusio hori guztia islatu nahi du San Pedro jaietako Kolpez Blai! ikuskizunean.

**Noiz hasi zinen batukadan?** 12 urte nituenean Ttakunek eskaini zuen ikastaro bat. Urte bete egon nintzen honetan eta ondoren gelditu egon nintzen denbora bat. Dinbi Banda sartu zen garai hartan baina oraindik ez nituen 16 urte eta ezin nuen sartu. Urteak bete nituenean hasi nintzen. Orduan konturatu nintzen asko gustatzen zitzaidala perkusioa eta bi urte neramatzanean, bateria klaseak jasotzen hasi nintzen Odei Astibiarekin. Bera da ZoZongo! taldeko zuzendaria, eta hiru hilabete neramatzanean eskaintza egin zidan taldean sartzeko.

ZoZongo!k ikuskizun ezberdinak ditu eta ezkontzetan aritzen den Kili Kolo taldean sartu nintzen. Oso denbora gutxira 'Kolpez Blai!'en jendea behar zuten eta ni bertan sartu ninduten.

**ZoZongo! ezagutzen zenuen?**

Bai noski, batukaden topaketatik ezagutzen nuen baina aurretik ere beraien lana ezagutzen nuen eta asko gustatzen zitzaidan.

ZoZongo!ren jarraitzaile sutsua nintzen, ia 'grupia'. Behin Martutenean jotzen zuten eta lagunek ez zuten joan nahi eta ama konbentzitu nuen laguntzeko. Hurrengo urtean taldean nengoen eta emanaldi bera egin nuen... Zeinek esango zidan.

**Zer jotzen duzu?**

Dinbi Bandan sartu nintzeanean surdo, dunbala antzekoa nahi nuen jo baina kaja behar zen eta hori ikasi nuen.

**ZoZongo! talde profesionala da...**

Bai, pixkanaka ari zait buruan sartzen Dinbi Bandarekin zerikusirik ez duela. Jendea bertan lanean ari da, niretzat afizioa da baina beste kideentzat lanbidea. Horrek eragiten du jarrera desberdina izatea. Dinbi Bandan inor ez da musikaria, ondo pasatzera goaz eta listo. Bestean ahalik eta emanaldi gehien egitea da helburua. Udan pila egiten dira. Egun berean hiru ikuskizun izan daitezke, edo hortik gora, laster bost ditugu egun berean.



Irati erdian bere talde kideekin, neska bakarrak dira ZoZongo!n.

Lana beste modu batera egiten dute eta niretzako, beraiekin egin nituen lehenengo entseguak klase magistralak izan ziren.

Emanaldiak ikusten nituenean zoragarriak iruditzen zitzaidan eta berdina egin nahi nuen baina horren atzean lan asko dago, entsegu ordu pila...

**Nola integratu zara taldean?**

Ondo, ongietorria ona izan zen, neska bakarra nintzen eta gazteena. Arrotzena izan zen eurek duten gauzak esateko modura ohitzea.

Dinbi Banda oso demokratikoa da, kide guztien artean hartzen dira erabakiak eta han ez.

Esan behar dut, lau hilabetera beste neska bat etorri zela taldera.

**Zenbat entsegu dituzu?**

Astelehenean ZoZongo!ren ezkontzetako taldearekin entseguak izaten dit, asteartean bateria klaseak, ostegunetan 'Kolpez Blai!' eta 'Psicho-Clown' behar denean eta ostiraletan, Dinbi Banda. Saskibaloia adinagatik utzi nuen baita antzerkia ere 12 urteren ostean eta orain musikan, perkusioarekin nabil buru belarri.

**Zein ikuskizun mota egingo duzue San Pedrotan?**

ZoZongo!k 12 urte daramatza martxan. Hasieran batukada bat zen baina egun askoz gehiago da. Perkusio ikuskizun ezberdinak ditu eta jendeak ez du askotan hori bereizten.

Larunbatean goizeko 5:00etan izango da 'Kolpez Blai!'. Aurretik, 2:00etan 'Psi-

cho-Clown'-ikuskizunaz gozatu ahal izango da. Bigarren horretan egongo naiz ni. 7:30ean lanera joan beharko dut eta 19:00etan Pasaian berriz jo, beraz oraindik ez dakit nola egingo duan lo egiteko... Baina nire herrian jo nahi nuela argi neukan.

Emanaldiari dagokionez, oso kañeroa izango da, parrandan eta dantzan jarraitzeko modukoa.

**Zer suposatzen du zuretzat herrian jotzeak?**

Oso motibatuta nago. Hasieran ez nekien jo behar nuen ala ez. Konfirmatu zidatenean oso pozik jarri nintzen.

Iaz Andoainan 'Kolpez Blai!'-rekin estreinatu nintzen eta han herriko jende pila topatu eta izugarritzko berotasuna sentitu nuen. San Pedrotako berezia izango da ziur.

**serigrafiaiosu.com**

ASKO DISFRUTATU SAN PEDRO JAIETAN!!!



Kamiseten inprimaketa  
Txiskeroak  
Industri nahiz iragarki serigrafia  
Binilozko pegatinak  
Boligrafoak, etb...

**943 37 19 54**

**TEJIDOS FERNÁNDEZ**

Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

**Fernández**  
ehunak

Ondo pasa jaietan!

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA

**Maite Erkezia**

ILE-APAINDEGIA  
ESTETIKA

ASKO DISFRUTATU FESTETAN!

Blas de Lezo 5, behea  
Tel.: 943 370254  
LASARTE-ORIA





# 30 urtez zuekin



Ondo pasa herriko jaietan!

# GOIEGI

*Jatetxea - Restaurante*

Irubide bailara 1 · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

T. 943 36 14 04 / 943 37 11 78



Ondo pasa San Pedro jaietan!!

# Balerdi Larategiak



### LASARTE

Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82

Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85

Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11

### HERNANI

Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

### URNIETA

Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69

### DONOSTIA

Birmingham, bajo n° 31 • Tel. 943 28 23 23





# Lasarteko Martxaren estreinaldia

Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak ereserki berria aurkeztu zuen

Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak gaur gauean 'Lasarteko martxa' estreinatuko du. 50 urteko ibilbidearen ostean, Danborradak bere ametsak bat bete du, ereserki propioa izatea. Jokin Goenaga herritarren lana da eta herriko zein herri kanpoko ekitaldietan eskainiko dute.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak kide eta udal ordezkariak ekainaren 20an, danborradaren entsegua amaitu baino lehen, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan agerraldia egin zuten. Horretan San Pedro Jai hauek berrikuntza ederra dutela eman zuten jakitera, 'Lasarteko Martxa'.

Doinu berria Jokin Goenaga herritarrena da eta Danborradako elkartearen 5. urteurrenarekin bat dator.

Felix Telleria elkarteak lehendakariaren, Jesus Zaballo alkatearen eta danborradako kide guztien eskerrak

jaso zituen Jokin Goenagak ekitaldian.

Telleriak aipatu legez, eskertza "elkartearen 5. urteurrean izandako keinuarengatik, baita egindako lanarengatik ere" da.

### Danborradaren ereserkia

Txema Valles eta Ladis Louvelli elkarteak kideek 'Lasarteko Martxa'-ren eta egilearen aurkezpena egin zuten.

Azaldu zuten, Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak urteak zeramatzan ideari bueltaka: "Mende Erdiko historia duen danborradak azkenean ametsa bete du; ereserki propioa du. San Pedro Jaietan eta herritik kanpo egiten ditugun agerraldietan erabiliko dugu doinua".



'Lasarteko Martxa'-ren aurkezpenean Danborrada elkarteak kideak, Jesus Zaballo alkatea eta Jokin Goenaga egilea izan ziren.

Jokin Goenaga musikari eta danborradako kideri esker izango da hori, "bere lana utzi digu eta".

Jokin Goenagaren ibilbidea goraiatu zuten eta errepaso bat egin zuten. Jose Antonio Merceroren akade-

mian hasi zuten musika ikasketak. Goi-mailako akordeoi irakasle titulua du eta gaur egun, bere konposizio propioak egin eta jotzen ditu. Bi liburu ere argitaratu ditu bata helduei zuzendua eta bestea haurrei. Hauetan estilo ezberdinak aurki daitezke.

### 'Lasarteko martxa'

Aurkezpenaren ostean, egileak berak 'Lasarteko Martxa'-ren nondik norakoak azaldu zituen.

"Duela 9 edo 10 urte hasi zen hau guztia, Felixek danborradak doinu propio bat behar zuela esan zuen entsegu batean eta gonbita egin zigun danborradako kide ginen musikariei, orduan batzuk ginen. Nik gogoak nituen eta entseguak hastean hurrengo urtean egingo nuela esaten nire buruari. Azkenean, iaz San Pedro Jaietako barrunba amaitu eta aste betera hasi nintzen lanean".

Martxak hiru zati dituela azaldu zuen konposagileak, "lehenengo zatia irmoa da, serioa, tronpetak daude; bigarrenak berriz, vals erritmoa du. Doinu honekin danborroleek formazioa puskatu ohi dugu dantzatzeko eta horrela izango da. Hemen tronboia da nagusi".

Hirugarren tarteak berezitasun bat izango duela azpimarratu zuen egileak, "danbor jole eta barril joleen arteko elkarrizketa dago, batek jotzen duen bitartean, bestea ixilik dago eta koreografia txiki bat egiten dugu, burua makurtu. Honek



Gaur gauean, lehen aldiz joko da 'Lasarteko Martxa' Okendo plazan eta gure herriko kaleetan.



taberna - jatetxea

Ondo pasa herriko jaietan!!

- Plater konbinatuak, razioak, bokatak...
- Oilasko errea eta ukondoa eramateko
- Taldeentzako bazkari eta afariak, hitzartutako menuak eta janari kubatarra enkarguz

Etxerako zerbitzua daukagu!

Pablo Mutiozabal 7, LASARTE-ORIA - 943 57 98 68



Ondo pasa herriko jaietan!

**Pintxoak**  
**Razioak**

...  
**ZATOK DASTATZERA!**

Kale Nagusia 46 - Lasarte-Oria



## Martxaren hirugarren zatian koreografia txiki bat egiten dute danborradako kideek, burua makurtu. Oriako Sorgin Dantza ekarri nahi izan dute gogora

Oriako Sorgin Dantza gogorazten digu”.

Jokin Goenagari ilusio handia egiten dio lan hau uzteak eta danborradak “urte askotan jotzea” espero duela adierazi zuen agerraldian.

Ekitaldiari amaiera emateko, gaur gauean estreinakoz gure herriko kaleetan barrena entzungo den ‘Lasarteko martxa’ eskaini zuten danborra-

dako kideek. Gainera, Felix Telleria zuzendariak Jokin Goenaga egileari utzi zion lekua.

Era honetara, gaurtik aurrera, Lasarte-Oriako danborradaren errepertorioan Raimundo Sarriegi edo Jose Antonio Mercero musikagileen abestiekin batera Jokin Goenagaren ‘Lasarteko martxa’ ere izango da.



Felix Telleriak bere lekua utzi zion Jokin Goenagari aurkezpenen martxa berria zuzen zezan.

**'Lasarteko Martxa'-z gain badira gure herriko danborradak kuttunak dituen beste doinuak ere, bata 'Lasarte-ko ereserkia' dugu eta bestea, 'Zein politak diren'. Hona hemen bien hizkiak, gaur gauean danborradako kideekin batera abestu ahal izateko.**

### Lasarte-ko Ereserkia

Zeruan izarrik dan arte,  
bere buruaren jabe,  
beste herriren lokarri gabe,  
nahi degu gure Lasarte.

Zeruan izarrik dan arte,  
bere buruaren jabe,  
beste herriren lokarri gabe,  
nahi degu gure Lasarte.

Orain arte  
buru bear da,  
besteren zati izan zera zu,

Bañan gaur,  
Errien artean,  
Erri izan bear duzu


Zeruan izarrik dan arte,  
bere buruaren jabe,  
beste herriren lokarri gabe,  
nahi degu gure Lasarte.


Zeruan izarrik dan arte,  
bere buruaren jabe,  
beste herriren lokarri gabe,  
nahi degu gure Lasarte.


Ay! Que bonitas son,  
las flores en el campo,  
Ay! Que bonitas son,  
los cerdos en el jaula  
Ay! Que bonitas son,  
las chicas de este pueblo  
a la vejez, suelen decir: Tútilis manguilis,  
tútilis yes.


Ze politak dira,  
loreak zelaian,  
Ze politak dira,  
txerriak kaiolean,  
Ze politak dira  
hemengo neskatilak  
zahartzen direnean  
esaten dute:  
Tútilis manguilis,  
tútilis yes.

Oh! Que sont très jolies,  
les fleurs de la campagne,  
Oh! Que sont très jolies,  
les cochons das la cage  
Oh! Que sont très jolies,  
les filles de cette ville  
zahartzen direnean  
esaten dute:  
Tútilis manguilis,  
tútilis yes.



*Firma onenekin egiten dugu lan* 


*Produktu organiko eta naturalak erabiltzen ditugu* 

*Ezkontzetarako orrazkerak, makillajea...* 

**Aurrez hitzordua hartu!**

Ondo pasa herriko jaietan!

**Hipodromo etorbidea 10**  
**20160 Lasarte-Oria**  
**Tel.:943 361597**  
**647 821361**





# ALBA

## ARROPA DENDA

 *Ondo pasa San Pedro jaietan!*

%30

%40

**MERKEALDIAK**  
Ekainaren 30etik aurrera

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

KOOKAĪ  PART TWO ese 0 ese NAFNAF 4E7SE



# Hamaika ekintza Ttakunen esku

Ttakun Kultur Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu San Pedro jaien egitarauaren baitan

**Gure Patxintxi sariak banatuko ditu elkarteak lehenengoz, haurren txupinazoaren ostean, herriko 65 urtetik gorako pertsona maitagarri eta goxoenei. Bestalde, Sorgin Dantzaren baitan, omenaldi xumea egingo zaie 1982. urtean ohitura hau berreskuratu zuen Sorgin Dantzaren lagunak taldeari.**

**T**takun kultur elkarteak urtero bezala hainbat ekitaldi antolatu ditu San Pedro jaien baitan euskal giroa festetan presente egon dadin.

Adin guztientzako ekintza sorta prestatu da aurtengoan eta ohi bezala herritarren aldetik harrera ona izatea espero da.

Hauetako batzuek arrakasta ziurtatuta dutela esan daiteke, Sorgin Dantzak eta Zikiro afariak esaterako.

## Patxintxi Sariak

Gaur San Pedro jaietako hasiera emango zaie haurren txupinazoarekin. Honen ostean Ttakunek lehenengoz, Gure Patxintxi sariak banatuko ditu. Patxintxiak Lasarte-Oriako 65 urte gorako pertsona maitaga-

ri eta goxoak dira. Herritarrek bidalitako hautagaiak Ttakunen sare sozialetan jarri eta bozketa irekia egin da. Gaur jakingo da zeintzuk diren herritar maitagarri hauek. Sarituek txapela eta Goiegi jatetxean bi pertsonentzako afaria eskuratuko dute.

Jarraian azken urteetan ohikoa den bezala, etxeko txiki eta gazteak izango dira jaietako ekintzekin ondo pasatzeko aukera izango dutenak.

12:00etan, haurren txupinaren ondoren, 13:30ean, haurrak kalejiran joango dira Atsobakarreko parkeraino Oriako txarangarekin. Bertan, 14:00etan, haurren bazkaria, makarronada erraldoia antolatu du Ttakunek. 250 ume-rentzat izango da.



laz Sorgin Dantzan 325 lagunek hartu zuten parte, aurtengo erronka kopurua handitzea izango da.

8 eta 12 urte arteko gazte-  
txoak Okendo plazatik atera-  
ko dira kalejiran Atsobakar  
aizoraino, bertan makarroiak  
bazkalduko dituzte.

Bazkalostean, 15:00ak  
aldera, ur jolas arrakastatsua  
egino dituzte. 16:00etan  
Busti Blai egingo dute. Horre-  
la, ur jolas ezberdinak burutu-

ko dituzte haurrek 16:30ak  
arte.

Ikastetxeetan aurreko  
astean lagun koadrilaren  
izena eta irudiarekin margotu-  
tako kamiseta dotoreak era-  
kusteko aukera izango dute  
gainera haurrek egun hone-  
tan.

## Omenaldia

Jaietako adierazgarri da Sor-  
gin Dantza eta aurten ere ez  
du hutsik egingo. lazkoa  
azken urteetako Sorgin Dan-  
tzarik jendetsuena izan zen.

325 bat herritarrek parte  
hartu zuten eta arrakasta erre-  
pikatzea da antolatzaileen  
nahia.

1994tik antolatzen du Tta-  
kun elkarteak eta dagoeneko  
Lasarte-Oriako herriaren eta  
bertako festa nagusien ikur  
bihurtu den Sorgin Dantza.  
Aurten ere Okendo plazan  
burutu dira entseguak hilabe-  
te osoan zehar eta oso harrera  
ona izan dute.

Helduen zortzikotearekin  
batera gazteen zortzikotea  
osatu da aurten ere. Ikaste-  
txeetan egin zen deialdia eta

hortik interesa izan duten  
gaztetxoekin eratu da.

Sorgin Dantza, Oriatik  
abiatuko da gaur arratsaldeko  
16:30ean gutxi gorabehera  
eta dantzariak bertan egon  
beharko dute 16:00etarako.

Ordutegia betetzea garran-  
tziatsua dela aipatzen dute  
antolakuntzatik eta horregatik  
herritarrei puntual azaltzea  
eskatzen zaie.

Aurten bidean dantzariak  
egino dituzten geldialdiei  
dagokionez, Oriako lehenen-  
goa, Biyak Bat jubilatuen  
elkarteen parean bigarrena  
eta Udaletxe zaharraren  
aurrean hirugarrena izango  
dira.

Dena ondo bidean eta  
eguraldiak laguntzen badu,  
Okendora 19:00etan txupina  
bota aurretik iritsiko dira dan-  
tzariak eta azken dantza pla-  
zan eskaini aurretik omenalditxo bat eskainiko  
zaie Sorgin Dantzaren lagu-  
nak taldeko kideei.

Sebastian Kerejeta, Felix  
Telleria, Iñaki Orotegi, Jose  
Mari Bardaji eta Alfredo  
Goiaranek Sorgin Dantza



Uretako jolasekin ederki pasako dute gaztetxoek Atsobakarren makarronadaren ostean.

aldizkariak  
esku-orriak  
kartelak  
liburuak  
egutegiak  
katalogoak  
papeleria  
agendak  
koadernoak  
karpetak  
logotipoak


**INPRENTA**  
offset eta digitala

**DISEINU GRAFIKOA**

**DISEINU EDITORIALA**

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Ondo pasa  
San Pedro jaietan!



Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
[www.antza.eus](http://www.antza.eus)



berreskuratu zuten 1982. urtean Orian. Aurtengoan, taldeak bizirik daudenei egingo zaie aitortza xumea.

**Zikiro afaria**

Gauean askorentzat ere tradizio bilakatu den zikiro afaria egingo du Ttakunek Okendo plazan bertan.

Arratsaldeko lehen orduetatik arituko dira sukaldariak 21:30etarako guztia prest izateko. Beraz, usain ederra izango da arratsalde osoan Okendo plazan.

Afarian, entsalada eta zikiroa egongo da 250 lagunentzat, giro ezin hobean.

Honetan parte hartzeko salgai izan dira txartelak azken bi asteetan Ttakun eta Jalgin.

**Sagardo dastatzea**

Bihar, San Pedro egunean Sagardo dastatzea eta dantza gidatuekin primeran pasatzeko aukera izango da.

Honetan herriko Sollane, Buenavista, Telleri, Zubillaga eta Saltsate baserrietako sagardoa banatuko da.

18:00etan hasiko da sagardo banaketa Okendo plazan. Edalontziak euro bat balio du eta gainontzean, nahi guztia edan ahal izango dute herritarrek.

20:00ak arte luzatzea espero da, edota sagardoak iraun arte.

19:10ean hasiko da dantza gidatua eta nahi duten herritarrek parte hartu ahal izango dute. Dantzan dakitenek eta ez dakitenek ederki pasatzeko aukera izango dute.

Gidari lanetan David Egizabal eta Maider Oiartzabal ariko dira.

**Bertso saioa**

Ostegunean, bertsoez gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei. San Pedro jaie-

tako bertso saio berezia Manuel Lekuonan egingo da 22:00etatik aurrera.

Aurten, Ane Labaka, Unai Muñoa, Patxi Etxeberria, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Beñat Gaztelumendi arituko dira oholtzan. Gaiak berriz, Amaia Agirrek jarriko ditu.

Bertso saio polita antolatuko du aurtengoan ere Ttakunek Erra! Bertso eskolak.

Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira Manuel Lekuonako leihatilan 5,50 eurotan.

**Kantu Jira**

Larunbatean Ttakunen egitarauan gero eta arrakasta handiagoa duen kantu-dantza jira egingo da goizean.

Dantza plazako dantzariak lagunduko dute eta dantza eta kantua uztartuko dituzte ibilbide osoan zehar.

Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Sagardotegi kaletik euskal abestiak kalekale kantatu eta dantzatzuz.

Erketz EDT-eko eta Kuku-ka eskolako dantzariak gonbita ere luzatu zaie parte hartzeko.

Xumela abesbatzak eta Albokako kide batzuk ere parte hartuko dute euren ahotsak batuz eta gonbidatuta daude bertan parte hartzera, Hondarribi, Zarautz, eta Donostiako kantu jiretako kideak.

Horrela izanda, jendetza elkartzea espero dute eta herritarrek ere hauetan batu ahal izango direla gogoratzen dute antolakuntzatik.

Aukera zabala eta adin guztietarako ekintzak izango dira urtero bezala Ttakunen esku San Pedro jai hauetan ere.

Herritarrei ekintzetan parte hartzeko eta ondo pasatzeko deia egiten zaie elkartetik.



Sagardo dastaketaren ostean, erromeria izango da Maider Oiartzabal eta David Egizabalek gidatuta.



Bertso saio berezirako sarrerak egunean bertan ere salgai izango dira 5,50 euroren truke.




Kantu-dantza jirara hainbat talde gonbidatuko dira iaz egin bezala.



HARATEGIA

- ARTISAU URDAITEGIA
- ETXEKO JANARIA
- BERTAKO HARAGIA



Ondo igaro  
San Pedro jaiak!



Aurten ere  
temperatura

Ondo pasa herriko festetan!

Kale Nagusia, 41  
Nafarroa kalea, 3  
Paseo Ondarreta 1

2016 LASARTE-ORIA  
20230 LEGAZPI  
20018 DONOSTIA

Tel.: 943 36 39 12  
Tel.: 943 73 18 25  
Tel.: 943 21 89 03





## San Pedro Jaietan hamaika ekitaldi



San Pedro Jaia hemen dira. Gaur eguerditik larunbatera jendez, kolorez eta musikaz beteko dira herriko kaleak. Etxeko txikiak izango dira lehenak jaiari hasiera ematen eta arratsaldeko txupinaren ostean, herritarrek ez dute aspertzeko denborarik izango. Hamaika ekintza daude antolatua adin eta gustu ezberdinak kontuan izanik eta hauetako asko herriko elkarteek antolatu dituzte, herria baita festen abiapuntu, ardatz eta helmuga. Aurten Landaberri ikastola izango da omendua eta haur, guraso eta irakasleak egongo dira gaurko txupin eta biharko ekitaldian. Larunbatean amaituko dira jaiak baina ordura arte goza dezagun San Pedro Jaiez.

**aterpea**  
Lasarte-Oria

**aterpea**  
lasarte/oria  
Merkataltza eta zerbitzu elkarte  
Asociación de comerciantes y servicios

**LASARTE-ORIA**  
UDALA

**LASARTE-ORIA**  
TRATU ON BAT  
UN BUEN TRATO

**PERTSONA-  
NEBURIA**  
EUSKO JAUREGIA  
GOBIERNO VASCO

*Herriko jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**SARDINA JATEA ekainaren 29an Okendo plazan arratsaldeko 18:00etan**

Akene zapata denda  
Alba moda denda  
Alda osagarriak  
Amalur ziberlokutorioa  
Kattagorri jolas  
Aritza mertzeria  
Andatza taberna  
Yolanda taberna  
Viña del Mar taberna  
Arkupe taberna  
Noelia osteopatia-fisioterapia

Abreu bazarra  
Bideo Lagunak  
Okela harategia  
Carrefour Express  
Aldaz hortz klinika  
Nogues jostundenda  
Donna arropa denda  
Buenetxea kafetegia  
Bus kafetegia  
Arregui elektrizitatea  
Sukoa burdindegia

Maite Betelu gestoria  
Izarra bitxitegia  
Araeta sagardotegia  
Apalategi taberna  
Lasarte taberna  
Josema burdindegia  
Olmí mertzeria  
Orbela ekodenda  
Santana informatika  
Trumoi taberna  
Lasarte parafarmazia

Santxo taberna  
Ilargi taberna  
Urruzola mertzeria  
Ormazabal loradenda  
Alcar leihoak  
Iturbe oinetakoak  
Ola enmarkazioak  
Zumaburu liburu denda  
Izurde taberna  
Noaoa bidaiak  
Maiane perfumeria

ISU leihoak  
Avenida kafetegia  
Iza-Guerri+C loteriak  
Multiópticas optika  
Maya lentzeria  
Lizarri optika  
Martin Berasategi jatetxea  
Ventanas San Miguel leihoak  
Bozal German



## Asteartea 28

**10:00-12:00**

Uretako festa izango da Udal Kiroldegian.

**11:00**

Kale Nagusian Udal Musika Eskolako trikitalari eta pandero joleak arituko dira.

**12:00**

Jai ei hasiera emateko, omen-  
duen pregoia eta haur txu-  
pinazoa botako da Udaletxetik, eta Buruhandien  
Konpartsa Ostargi elkartearen  
eskutik abiatuko da, Oriako  
Txaranga eta Oaintxe in deu!  
txarangak lagundurik.

**Ondoren**

Gure Patxintxi lehiaketako  
saribanaketa Udaletxean.  
Ttakun K.E.-k antolatua.

**13:30**

Oriako Txaranga-rekin hau-  
rren kalejira Atsobakarrerai-  
no, irteera Udal zaharrean.

**14:00**

Haurren herri-bazkaria  
Atsobakarko parkean. Ttakun  
K.E.-k antolatua.

**15:00**

Bazkalondoan, uretako jola-  
sak Atsobakar auzoan.  
Ttakun K.E.-k antolatua.

**16:00**

Busti Blai jarduera, Atso-  
bakarko plazetan barrena  
Ttakun K.E.-k antolatua.

**16:30**

Sorgin-Dantza abiatuko da  
Oriatik, eta Okendo Plazan  
bukatuko da. Ttakun K.E.-k  
antolatua.

**17:00**

Biyak Bat elkarteko zumba  
erakustaldia Isla plazan.

**19:00**

Landaberi ikastetxearen



eskutik pregoia eta txupina-  
zoa Udaletxe berriko balkoi-  
tik Okendo Plazan.

**Ondoren,**

Erraldoien dantza Okendo  
plazan Oriako Txarangarekin  
eta Oaintxe in deu! txaranga-  
rekin.

**20:00**

Demode Quartet Okendo  
plazan.

**21:30**

Zikiro-afari tradizionala  
Okendo Plazan. Ttakun K.E.-k  
antolatua.

**23:00**

Beteranoen danborrada tra-  
dizionala, Oriako Txaranga  
lagun dutela, Okendo plaza-  
tik herriko kaleetan barrena  
ibiliko dira. ATLO-k antola-  
tua.

**00:00**

Dantzaldia Ibai Berriak-en  
eskutik Isla Plazan.

## Asteazkena 29 San Pedro eguna

**10:00**

Diana Incansables Txaran-

garekin, herriko kaleetan  
barrena.

**11:00**

Extremadurako danbolin-  
jotzaileen kalejira, herriko  
kaleetatik. Extremadura  
etxeak antolatua.

**11:30**

Haur Parkea Andatza pla-  
zan.

**11:30**

Esku pilota-partidak Jubeni-  
len eta 1. Mailako seniorren  
kategorietan, Loidibarrenge  
frontoian. Intza elkarteak  
antolatua.

**12:00**

Extremadurako migen das-  
taketa eta Extremadurako  
danbolin-jotzaileen ema-  
naldia Okendo plazan. Extre-  
madura etxeak antolatua.

**12:30**

Herri-kirolak Elizatze Pla-  
zan.

**13:00**

Omenaldia Landaberi  
ikastetxeari Manuel Lekuona  
kultur etxean.

**16:30**

Haurrentzako parkearen  
jarraipena Andatza Plazan.

**18:00**

Sardina-jate herrikoia  
Okendo Plazan Aterpea  
Merkataritza elkarteak antola-  
tua.

**18:00**

Sagardo-dastatzea Okendo  
Plazan Ttakun K.E.-k antola-  
tua.

**18:30**

Tio Tenoren Semeak, Oken-  
do Plazan.

**19:10**

Dantza tradizional zuzen-  
duak Okendo Plazan. Ttakun  
K.E.-k antolatua.

**19:00**

Biyak Bat konpartsa abia-  
tuko da Jubilatuen Elkartetik,  
eta herriko kaleetan barrena  
ibiliko da, Incansables Txar-  
angarekin.

**19:00**

Haurrentzako xexenak Isla  
Plazan.

**19:30**

Trapu zaharrak taldeak 'A  
cal y canto' obra antzeztuko  
du Elizatze Plazan.

**23:00**

Dantza-piezak Azabache  
taldearen eskutik, Isla Plazan.

**00:00**

Zezen suzkoa Nagusi  
kalean.

## Osteguna 30

**11:00**

Lerroko dantzen erakustal-  
dia egingo dute Biyak Bat  
elkarteko kideek Okendo Pla-  
zan.

**11:30**

Haurrentzako parkea Andat-  
za Plazan.

**12:00**

Erraldoi eta buruhandien  
konpartsa abiatuko da Blas  
de Lezo kaleetik, eta herriko  
kaleetan barrena ibiliko da,  
Kalean txarangarekin.

**16:30**

Haurrentzako parkearen  
jarraipena Andatza Plazan.

**18:00**

Biyak Bat koruaren emanal-  
dia Brigitarren komentuan.

**18:30**

Oaintxe in deu txaranga  
herriko kaleetan barrena ibi-  
liko da.

**19:00**

Haurrentzako xexenak Isla  
Plazan.

**22:00**

Bertso-festa Manuel Lekuona  
kulturetxean. Ttakun K.E.-k  
antolatua. Parte-hartzaile  
hauekin:

*Gai-jartzailea*  
Amaia Agirre

*Bertsolariak*  
Unai Muñoa  
Ane Labaka  
Patxi Etxeberria  
Beñat Gaztelumendi  
Andoni Egaña  
Maialen Lujanbio

## TABERNA Buenetxea KAFETEGIA



Ondo pasa  
herriko jaietan!



### FRESKAGARRIAK!

- "Smoothie"-ak
- Batido naturalak
- Koktelak
- Mojitoak
- Gin Tonic bereziak



### FESTETAN:

- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Sandwichak
- Hamburgesak

### KAFE BEREZIAK:

- Irlandesa
- Eskozesa
- Kaputxinoa
- Bonboia



**00:00**  
Zezen Suzkoa Kale Nagusian.

**00:00**  
Dantza-piezak Tsunami orkestrarekin Jaizkibel Plazan.

## Ostirala 01

**10:30**  
Haurren bola eta tokako botaldia Okendo Plazan Ostadar S.K.T.-k antolatua.

**10:30**  
Helduen tokako botaldia Okendo Plazan. Ostadar S.K.T.-k antolatua.

**11:30**  
Haurrentzako parkea Andatza Plazan.

**12:00**  
Erraldoi eta buruhandien konpartsa aterako da, Mutil Gazteak txarangarekin.

**16:30**  
Haurrentzako parkearen jarraipena Andatza Plazan.

**19:30**  
Apar festa Andatza Plazan.

**20:00**  
Artistas del Gremio fanfarea abiatuko da.

**23:00**  
Gau-festa Karisma taldearekin Isla Plazan.

**00:00**  
Zezen Suzkoa Kale Nagusian.

**00:00**  
Doctor Deseo Okendo Plazan.

**02:00**  
Psycho-Clown herriko erdialdean barrena ibiliko da.

**05:00**  
Kolpez Blai erdi aldeko kaleetan zehar abiatuko da.

## Larunbata 02

**07:00**  
Txokolatada Udaletxe zaharreko arkupeetan.



### Oharrak

Aldez aurreko salmenta, ekainaren 18tik aurrera, 18:00etatik 21:00etara bitartean, Manuel Lekuona Kultur-etxean:

**Bertsolariak** 5,50 euro  
(Helduen bonoek balio izango dute)

**Uretako festa:** Parte-hartzaileek igeri egiten jakin beharko dute, eta bakarrik sartuko dira igerilekura. Abonudunak dohainik sartuko dira, eta abonugabeek 3,70 euro ordaindu beharko dituzte.

**Uztailaren 3an feria guztiak 1 euroko kostua izango dute.**

### Gomendioak:

- 1.- Udalak beretzat erreserbatzen du programatutako ekitaldiren bat ezinbesteko arrazoiengatik aldatzeko, kentzeko edo bertan behera uzteko eskubidea.
- 2.- Pertsona guztiei arren eskatzen zaie

kasu egin diezaietela Udaleko enplegatuengandik edo agintaritzako agenteengandik jaso ditzaketen agindu partikularrei, eta, bestalde, ez ditzatela oztopa DYArekin lanak, festetan esku hartu beharrean gertatuz gero.

- 3.- Parte hartu, ondo pasatu, baina kontuan izan besteenganako errespetua.
- 4.- Errespetatu kaleko altzariak, lorategiak, kale-plazak, etab., lasarteoriatar guztion eta zerorren onerako.
- 5.- Ez oztopatu ez garbiketako lanak, ez udal zerbitzuenak; kontuan izan zenbait lan egingo dutela, gainerakook festetan ondo pasa dezagun.
- 6.- Debehatuta dago petardoak, suziriak edo antzekoak saltzea.
- 7.- Gogorazten da debehatuta dagoela 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea.
- 8.- Edaten baduzu, ez gidatu.
- 9.- Kale Nagusia itxia egongo da ibilgailuen trafikorako, 2 zenbakitik 32 zenbakira bitarte, ekainaren 28ko 11:00etatik uztailaren 3ko 05:00 arte.

**7:30**  
Sokamuturra Elizatze Plazan.

**10:00**  
Bola-jokoa Michelingo bolatokiari. Ostadar S.K.T.-k antolatua.

**10:30**  
Lasarte-Oriako pilota txapelketako partidak Loidibarrengo frontoian: benjaminak, alebinak, infantilak. Intza elkarteak antolatua.

**11:00**  
Oriako Txaranga lagun dutela, Gaztetxoek Danborrada herriko kaleetan barrena ibiliko da. ATLO-k antolatua.

**11:30**  
Haurrentzako parkea Andatza Plazan.

**12:00**  
Kantu-dantzajira herriko hainbat kaleetan barrena ibiliko da. Ttakun K.E.-k antolatua.

**14:00**  
Herri-bazkaria Tximistarreta parkean.

**16:30**  
Haurrentzako parkearen jarraipena Andatza Plazan.

**17:00**  
Oriako Txaranga herriko kaleetan barrena ibiliko da.

**18:00**  
Zaldi-lasterketa eta Gizakia vs Zaldia lehiaketa Atso-bakarreko zelaian.

**19:30**  
Mariatxiak Isla Plazan.

**20:00**  
Cabaret Okendo Plazan.

**23:00**  
Valecea piroteknia ospetsuaren su-festa Atso-bakarko zelaian.

**23:30**  
Dantza-piezak Sabiron orkestrarekin Jaizkibel Plazan.

**00:00**  
Zezen Suzkoa eta jaien bukaera Kale Nagusian.

**00:00**  
Ken Zazpi Okendo Plazan.

Eguzkitako  
betaurrekoetan  
**DESKONTUAK**


 **IRIGOYEN**

OPTIKA



Ondo pasa San Pedro jaietan!!

Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47





# Sorgin Jaien 15. urteurrena!!

San Pedro Jai bereziak izango dira herriko sorginentzat, aurten 15 urte betetzen baitituzte Sorgin Jaiak. Urte hauek guztiak igarota jai alternatiboak Lasarte-Orian egitea posible dela erakutsi dute. Horregatik, Sorgin Jaiak antolatzen lagundu duten guztien ize-nean botako da txupina gaur gauean. Aurten Esna Hadirekin eta beste eragileekin batera lan egin du taldeak egitaraua osatzeko. Has dadila festa!



## Asteartea 28 Pijama eguna

**19:30**  
Kuadrillen jaitsiera, Isla Plazatik abiatuta, herriko kaleetan barrena ibiliko dira.

**21:30**  
Txupina Okendo Plazan. Omenduak 15 urte hauetan Sorgin Jaiak antolatzen lagundu dutenak.

**00:00**  
Izeberg pop-taldeak girotuko ditu gaueko lehen orduak, Erokomeri erromeriarekin amaituko da Okendo Plazan.

**Broom!!!** taldearekin. Ibilbide honekin: Kale Nagusia 62, Isla Plaza, Jaizkibel Plaza, Buruntza Kalea eta Kale Nagusia 2.

**21:30**  
'Kamioi Rocka' amaiera Okendo Plazan.

**21:30**  
Sorgin-afaria Okendo Plazan eta bideo emanaldia.

**00:00**  
Kontzertuak Okendo Plazan:  
  
Hilotz  
Bolbora  
Bar Remigio

**Lagunak-en** ekitaldia, Pintore Kalean.

**18:30**  
Rafafa Magoa Vs Toni Magoa Pintore Kalean.

**19:00**  
Patata-tortila lehiaketa Pintore Kalean.

**20:00**  
Elektrotxuffa herriko kaleetan barrena ibiliko da.

**22:00**  
Afari-potea eta Kalera Fest bideoaren aurkezpena Pintore Kalean.

**23:30**  
Kontzertuak Pintore Kalean:

Sutura  
Txapelpunk

**01:00**  
Erromeria Gozategi taldearekin Okendo Plazan.

## Asteazkena 29 San Pedro Eguna

**18:30**  
'Kamioi Rocka' Rock Kam

## Osteguna 30 Esna Hadi eta SJ

**17:00**  
Hurrek gozatzeko Irrien

# MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

<p><b>*IBILGAILUAK</b></p> <p>MOTOZIKLETAK AUTOMOBILAK AUTOKARABANAK FURGONETAK KAMIOIAK...</p> <p><b>*MERKATARITZA</b></p>	<p><b>*BIZITZA ETA ERRETIROAK</b></p> <p><b>*OSASUNA</b></p> <p><b>*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK</b></p>	<p><b>*ERANTZUKIZUN ZIBILA</b></p> <p><b>*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK</b></p> <p><b>*INBERTSIOAK</b></p> <p><b>*PYMEAK...</b></p>
---	--	--

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 34 49 & FAXA: 943 37 24 13

Ondo pasa festetan!



**MUGICA**

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362275 & Faxes: 943 372413

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Deshontu eta  
beherapen handiak!

Bideo = TIEN 21 =  
**Lagunak**

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | [www.bideolagunak.com](http://www.bideolagunak.com)

Etxekotresna  
elektrikoetan  
adituak

12 ORDAINDU  
HILABETETAN  
INTERESIK GABE

TIN: 0% TAE: 0%



## Ostirala 01

**17:00**  
Oria ibaiaren jaitsiera.

**19:00**  
Kontzertuak Villa Mirentxun:

Talde sorpresa  
(Lasarte-Oria)  
La sombra del vaso  
(Vallecas)

**12:30**  
Bakailao txapelketaren amaiera.

**Jarraian,**  
sari banaketa izango da.

**14:00**  
Herri-bazkaria Tximistarreta parkean.

**17:00**  
Mus txapelketa

## Larunbata 02

**10:30**  
VI. Bakailao txapelketaren hasiera Mercero Plazan.

**20:00**  
Joxe Replay Kale Nagusian.

**02:00**  
Bad Sound System Okendo Plazan.



## Oharrak

- Mus txapelketa:  
Izena ematea egunean bertan egingo da Sorgin gunean.

- Bazkari herrikoia:  
100 pertsonentzako paella Extremadura etxeko kideen eskutik.

Txartelak 5 eurotan Insausti, Avenida eta Gure Etxea tabernatan, Tximistarretan bertan ere egongo dira salgai.

Bakoitzak bere bazkaria prestatzeko aukera ere izango du. Edaria ere egongo da salgai.

- Sorgin Jaiak ez da kargu egiten bertan gerta daitezken ezbeharrez.

- Sorgin Gunean ez dira eraso SEXISTA, ARRAZISTA, HOMOBOFO eta FAXISTA-rik onartuko.

- Herritarrek Sorgin gunea txukun mantentzea erregutzen dute Sorgin Jaiak.

- Era berean, herritarrei edalontzien berrera-bilpena eta ekimenetan aktiboki parte har dezaten animatzen die.



# Jai parekideen aldeko protokoloa

Jaiak **DENONTZAT** dira, emakumeok ere disfrutatu nahi dugu!

### ERRESPETATU

Bakoitzak jai nahi duenean, nahi duenarekin eta nahi duen bezala bizitzeko eskubidea du. Emakume batek **EZETZ** esaten duenean, **EZETZ** esan nahi du.

### KONPARTITU

Etxeko zereginak eta ardura familiarrak banatzen baditugu **DENOK** ondo pasatzeko denbora gehiago izango dugu.

### BABESTU

Ez onartu inolako gehiegikeriarik. Emakume bat erasotzen ikusten baduzu edo emakume bazara eta indarkeria fisikoa, psikologikoa, berbala zein sexuala jasaten baduzu, deitu telefono honetara: 900 840 111 /016. Larrialdietarako 112 erabili. Lasarte-Oriako udaltzaingoa: 943-362442

'Sorgin Jaietan ere Lasarte-Moria' bideoa grabatu du herritar talde batek. Bertan zehazten dutenez, eraso sexistarik gertatuko balitz, 688 609 221 telefonora deituta aktibatuko litzateke protokoloa. 'Brigada moreak' egongo dira gauero, etxerako

bidean herritarrak laguntzeko.

### BARNERATZEKO MEZUAK

- Izan zeure buruaren jabe.
- Drogak erabiltzeak edo neurririk gabe kontsumitzeak ez ditu erasoak justifikatzen.
- Erasotzea delitua da, defendatzea ez. Erasotzen aurrean autodefentsa feminista!!!
- Ez zaitez erasoen konplizea izan, egin zerbait, eta esan erasotzaileei Ezetz da ezetz.
- Susmorik baduzu fidatu zure intuizioaz.
- Kalearen erdituk joan pauso sendoak eman eta jarrera seguru batekin.
- Laguntza eskatu nahi baduzu, sua oihukatu.



**Carrefour**  
express

Ondo pasa San Pedro jaietan!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Ondo pasa San Pedro  
jaietan!



# ILLARRETA

## ITURGINTZA



**ERAKUSKETA, DENDA ETA  
BULEGOA**

Geltoki kalea 21 - Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

info@illarreta.com



**TAILERRA**  
Oialume Bidea, 24 - Astigarraga

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Zure  
jaiak.  
Gure  
jaiak.





Jon Altuna Egitegi Kirol kazetaria

# “Maialen Chourrautek urrea lortzen duela kontatu nahiko nuke”

Jon Altuna kirol kazetaria Rioko Joko Olinpikoetara joango da abuztuan

*“Asmoa banuen urteren batean Joko Olinpiko batzuk zuzenean ikusi eta bizitzera joateko asmoa, baina zaletu gisa; ez nuen imajinatuko kazetari moduan joateko aukera edukiko nuenik”.* Jon Altuna kirol kazetariaren hitzak dira. **BAT Basque Team eta Gazte Aukerak** abian jarritako egitasmo batean parte hartu, eta abuztuan Rioko Olinpiar Jokoetara joango diren lau hautatuetako bat izan da. *“Nire bizitzako bidaietako bat izango da; inoiz ahaztuko ez dudan zerbait, ziur”.*

Iñigo GONZALEZ

Kazetaritza ofizio eta kirola afizio ditu Jon Altuna herritarak. Orain, gainera, ofizioa afizioarekin uztartzen ari da, Euskadi Irratian ari baita kirol kazetari lanetan. “Oso argi eduki dut era batera edo bestera kiroletik bizi nahi nuela; eginez ez bazen, komunikatuz”, zehazten du herritarrek. Abuztu honetan ere ariko da komunikatzaile lanetan, non eta Rio de Janeiroko (Brasil) Joko Olinpikoetan. Hilaren 8tik 15era bitartean egongo da han. BAT Basque Team eta Gazte Aukeraren egitasmoan parte hartu eta aukeratua izan da; ‘Gazte Olympic Team’-eko kidea da.

24 urte ditu Altunak, eta ibilbide zabala atzetik: TXINTXARRIN, Mundo Deportivon eta Euskadi Irratian makina bat elkarriketa eginak ditu. Oraingo honetan, beste aldea ezagutzeari tokatu zaio.

Nola sortu zaizu aukera Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetara joateko?

BAT Basque Team eta Gazte Aukerak lehiaketa bat jarri zuten martxan, 30 urtez azpiko kazetari eta abarrei aukera emanaz kirol ekitaldi hori zuzenean ematera joateko.

Lehiaketa bat zen, ‘Euskal Selektzioak hamar domina lortu ditu’ gaiaren ingurukoa. Bideo zein testu formatukoa izan zitekeen lana. Denera 70 bat pertsona aurkeztu ginen, eta nirea izan da zortzi aukeratuetako bat. Horetako lau, ni barne, Olinpiar Jokoetara goaz abuztuan. Beste lauak berriz, Paralimpikoetara, iraillean. Zortzi kidek osatzen dugu ‘Gazte Olympic Team’.

**Hitz egidazu zuk aurkeztutako lanari buruz.**

Gaia aztertu ostean, erabaki nuen testu bat egitea. Artistiko samarra geratu zitzaidan, nolabait esatearren.

Bost euskal kirolari hautatu nituen, eta haiekin batera, euren atzean zeuden makulu eta euskarriekin egin nien aipamena: Maialen Chourraute piraguista eta Ane alaba, Richard Oribe igerilaria eta ama Rosa, Jon Santacana ikusmen urriko eskiatzailea eta haren gidari Miguel Galindo, eskubaloia jokalariren Patri eta Eli Pinedo ahizpak eta Maider Unda borrokalari eta haren baserri Atxeta. Foku guztiak kirolarietara eraman ohi dituzte, baina atzetik edukitzen dituzte hainbat pertsona laguntzen, domina ikusez batzuen gisakoak direnak.

**Zenbat egunetarako zoaz Riora? Nolako izango da zure egunerokoa han?**

Abuztuaren 8tik 15era bitartean egongo gara han, konpetzioko lehenengo astean.

Egunero-egunero ‘post’ bat igo beharko dugu Gazte Aukeraren blogera. Horrez gain, ‘@got\_rio2016’ instagram kontua ere elikatu beharko dugu, eta bi egunetik behin bideo bat igo YouTubera. Gaiak askotarikoak izan daitezke: kirolarietara elkarriketak, hango giroa... eta baita espreski kirolari lotuta ez daudenak ere. Hitz egin dezakegu, adibidez, Rioko txartel saltzaile edo denda ibiltarietara buruz. Mila gai egon daitezke.

Oraindik Jokoetarako sailkatzen ari dira euskal kirolariak, eta, horregatik, ez dakigu zehazki zein izango den gure plana Rioko egonaldian. Pentsatzen dut lehenetsiko dituztela euskal kirolarien guneak.

Lehen esan dudan bezala, zortzi kide hautatu gaituzte. Lau Olinpiadetara joango gara



Orotariko kirolen berri emango du Jon Altunak Rioko Joko Olinpikoetan.

*Abuztuaren 8tik 15erartekoa izango da herritarraren egonaldia Rio de Janeiron; Barra da Tijucako auzo olinpikora zihoazen hasieran, baina, azkenean, Copacabanara doaz*

abuztuan: Aitor Biain oñatiarra, Irati Agirre donostiarra, Maria Lopez zumaiarra eta ni neu. Kazetariak gara Aitor, Irati eta hirurok, klasekideak izandakoak gainera! Maria bideo-gintzan aritzen da.

Kazetaritza eta kirola gustuko badituzu, aukera paregabea da guk biziko duguna. Dimentsio hain handiko kirol ekitaldi bat kubritzea izugarria da. Gainera, nik ez dut inoiz Atlantiokoaren beste aldera bidaiatu. Nire bizitzako bidaietako bat izango da abuztuko; inoiz

ahaztuko ez dudan esperientzia bat, ziur.

**Nondik emango duzue gertatzen denaren berri?**

Hasiera batean Barra da Tijucara gindoazen, auzo olinpikoa egongo den gunera, baina azkenean Copacabanara goaz.

Lau gune nagusi egongo dira: Barrako auzo olinpikoa, Copacabana, Deodoro eta Maracana. Mapa eskuetan hartuta, badirudi gune batetik besterako distantziak laburrak direla, baina ez; esan zigute-



**GARROA** taberna

- Razioak
- Entsaladak
- Bokatak
- Hamburgesak

Ondo pasa San Pedro jaietan!  
Sagardotegi kalea 4, LASARTE-ORIA



Ondo pasa San Pedro jaietan!  
**NEUS**  
Ile-apaindegia

Pablo Mutiozabal 9, 1.C  
Tel: 943 36 16 91  
LASARTE-ORIA



**ISLANDIA**

aurora borealak  
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

Ondo pasa festetan!  
**BIDAIA TALDEAN**  
irteera Lasarte-Oriatik

Erreserbak eta informazioa bulegoan

**NOAOA BIDAIAK**  
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria  
T. 943 373 613 - info@noaoabidaiak.com  
www.noaoabidaiak.com



nez, pare bat orduko bidaiak egin behar dira toki batetik bestera mugitzeko.

### Hilabete eta zerbait gehiago besterik ez zaizu falta Rio ezagutzeko. Kanpotik, zein iritzi duzu hiriri buruz?

Hiria bera apur bat idealizatuta dagoela esango nuke: klima ona, hondartzak, Copacabana... Hori ere badago, egia da, baina Rio ez da hori bakarrik. Beste hainbat hiritan gertatzen den bezala, honek ere badauka 'B' alde bat. Bi Rio daude.

Angel David Rodriguez belozistari irakurtzen nion Rion ez dagoela Joko Olinpikoen girorik. Rio bakarrean dago, Rio aberatsean: Barran, Ipaneman... horrelako tokietan giroa dago, baina beste hainbat gunetan ez. Jendeak beste lehentasun batzuk dauzka, jan egin behar du, eguneroko bizimodua aurrera atera. Gustatuko litzaidake ezagutzea Rion 'B' alde hori, nahiz eta seguras-ki ezingo dugun 'faveletara' igo, adibidez, arrisksua baita; lapurreta-tasak altuak dira.

Bi hilabete baino gutxiago falta dira Jokoak hasteko, eta instalazioak ez daude bukatuta, zika birusa... Elementu horiekin bititzen ikasi beharko.

### Ez al zaituzte atzera botatzen aipatu dituzun horiek?

Ander Elozegi piraguista berriki egon da Rion, astebetetz, eta komentatzen du bertan egon bitartean ez zela gogoratu ere egin zikaz eta antzeko kontuetz. Euskal Herrira bueltatu zen, eta handik gutxira egin zituen Pau Gasol saskibaloi jokalaria adierazpen ospetsu horiek, zikagatik ez zela joango agian... lurrikara sortu zen orduan. Eta nik horri gehitzen diot: futbola egon bitartean, zikaz hitz egin da, baina ez asko. Eta, Champions League eta ligak bukatu direnean, gaia lehen planoan. Hedabideek bete egin behar dituzte orriak, hitz egin behar da zerbaiti buruz, eta, gainera, Gasol bezalako kirolari mediatiko batek hauspotu zuenez... Hainbeste oihartzun ez daukan norbaitek esan balitu hitz horiek, erreakzioa ez litzateke berbera.

Riora joan aurretik zenbait irizpide eman dizkigute: osasun azterketa bat egitea aholkatu digute, zehazteke dago txertorik beharko ote dugun... Ez goaz oihanaren erdira ezta ere, jende asko joaten da Riora, ez gara izango ez lehenengoak ezta azkenak ere. Kezka hor dago, baina ezin dizu loa

kendu, bestela ez duzulako egonaldiaz gozatuko. Horrek ez du kentzen zikaren gaia errespetu handiz hartu behar ez denik. Horrelako gai serio batekin ez dut fribolizatu nahi.

Haurdun dauden emakumeentzat da bereziki arrisku-tua zika, malformazioak eragin baititzake umekietan. Atleta batzuk ari dira jada neurriak hartzen. Greg Rutherford luzera jaurtizaille britainiarrak, esaterako, semena izoztu du Rio de Janeirora joan aurretik. Ikusiko dugu birus horrek zenbaterainoko eragina daukan gero.

### Zein albiste idaztea gustatuko litzazuke? Zer lorpen kontatu nahiko zenuke?

Ederra litzateke Maialen Chourraut herriko piraguistak urrea irabazi duela kontatzea, K1 modalitateko finala gu han egon bitartean jokatu baita; hori gustatuko litzaidake gehien, ezbaierik gabe. Nik uste dut merezi duela behingoz. Pekinen 16. izan zen, brontzea irabazi zuen Londresen, eta, nik esaten diodan bezala, eskailerari jarraituta, aurten lehenengo postua tokatzen da. Berak ez du ukatzen hori dela bere helburua; ez diezu kirolari askori entzungo hori onartzen.

## “Nire ustez, dominaren bat irabaziko dute euskal kirolariak Rion; hala ere, joate hutsa izugarritzko lorpena da askorentzat, ez ahaztu mundu mailako kirol ekitaldi bat dela”

Dena atera behar zaio ongi xedea lortzeko. Joko Olinpikoek hori daukate: ez da soilik kirol alorrean onena izatea, onena izan behar duzu baita ere egoerak kudeatzen. Maialenek kanalean egin beharko dituenak ez dira izango beste konpetizio batzuekiko oso desberdinak, baina inguratzen duen guztia bai. Eta, azkenean, hori dena ongien eramaten dakienak aukera gehiago edukiko ditu urrea kolokartzeko.

Bitxia da Maialenen kasua: aurreko egunetan urduri egoten da, baina zirt edo zart egin behar den uanean lasaitu egiten da, beste askori gertatzen zaionaren kontrara. Pertsona ambizio-oso dela esango nuke, umila eta oso exigentea aldi berean. Dena ongi egin nahi du: entrenatu, sasoi puntu onean egon... eta zaila da hori dena kontrolatzea. Bizkor dabil uretan, berak planifikatu bezala doa dena oraingoz. Ama ere izan nahi zuen, Ane jaio zen eta berriro elitera itzuli da. Askok baloratzen da hori. Ea beste domina bat ekar dezakeen herrira, duela lau urte bezala.

### Lasarte-Oriak bi ordezkari izan zituen Londresen. Maialen bera eta Nely Carla Alberto eskubaloi jokalaria.

Eta biek ekarri zuten brontzezko domina bueltan herrira! Adierazgarria da hori. Domina zerrenda eskuetan hartuta, ez daude herrialde asko bi domina lortu zituztenik Londres 2012ko Jokoetan. Eta Lasarte-Oriak, 18.000 biztanle pasatxoko herri batek, bai.

Ikusi beharko da ea Nely Carla Rion ariko den ala ez. 18 jokalariko aurredeialdian sartu da; prestatzailearen esku dago orain Espainiako selekzioa osatuko duten 14ak aukeratzea. Denboraldi bikaina egin du Albertok, Brest Bretagne taldearekin Frantziako Kopa irabaziz.

Multzo zaila tokatu zaie, baina bukaerara arte iritsi nahi baduzu, nahi eta nahi ez onenen kontra lehiatu behar duzu.

### Dominez ari garela, Rion ariko diren euskal kirolariak ekarriko al dute baten bat?

Nire ustez, dominaren bat irabaziko dute euskal kirolariak. Nork ez dakit, baina baten bat ekarriko dute bueltan, ziur. Bakarkako modalitatean, Maialen Chourraut da aukera garbientako bat. Nire ustez, Ander Elozegi piraguistak ere eman dezake zer esana; Pekinen eta Londresen 4. postua erdietsi zuen. Iñigo Peña ur lasaietako piraguista ere aukera garbia da, Sugo Uriarte judoka 4. izan zen Londresen... Taldekako kiroletan ere lor daitezke dominak: eskubaloiari, txirindularitzan, atletismoan edota belar hockeyan, esaterako.

Hala ere, eman diezaiozun perspektiba apur bat gaiari: mundu mailako kirol ekitaldi batez ari gara hizketan. Joate hutsa jada sekulakoa da gehientzat. Zaila baldin bada zure portaleko onena izatea zerbaitetan, pentsa ezazu munduko hiru onenen artean sartzea! Oso-oso maila altuaz ari gara hizketan; dominak lortzeak ilusioa ematen du, jakina, baina ikaragarri zaila da.

Joko Olinpikoetara joatearekin lotuta, Ainhoa Muruaren kasua datorkit burura. Aurten laugarrenek ariko da. Zerbakitar eramanda, 16 urte dira elitetan. Hori, nire ustez, edozein domina irabaztea baino gehiago da. Triatloiarren gisako diziplina batean, gainera: 16 urte egurrean, goi-mailan. Kirolari hauek ez daukate beste batzuek bezainbesteko foku mediatikoa, baina balore oso baliotsuak igortzen dituzte.

Kirolari bezala Joko Olinpikoetan parte hartzea sekula-



Zortzi kidek osatzen dute 'Gazte Olympic Team'. Lau Joko Olinpikoetara joango dira, eta lau Paralimpikoetara.

**GURE ETXEA**  
Taberna



Ondo pasa herriko jaietan!

Kale Nagusia 14  
LASARTE-ORIA  
943 37 42 44

Ondo pasa San Pedro jaietan!

**Josue Igeltseritza**

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Atallu pol. atallu, 28  
USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

Nagusia 49,  
Lasarte-Oria  
943 37 02 90

Jantzi denda • 38-60 neurriak

**INQUIETUD**



Ondo pasa San Pedro jaietan!





**“Irratiak badauka emozioak berehala islatzearen magia hori; ez da berdina kazetariak idaztea zerbaiti buruz kirolaria elkarrizketatu ostean, edo zuzenean ahotsa haiei ematea”**

koa da, ezbairik gabe. Kazetari gisa aritzea ere bai? Horrelako aukera bat edukitzea ez nuen imajinatzen. Baneukan asmoa urteren batean zaletu gisa Olinpiar Joko batzuk ikusi eta bizitzera joateko, baina ez lanera, kazetari bezala. Orain arteko lan-esperientzia guztietan asko ikasi dut, eta abuztuko hori ere ikasgai berri bat izatea espero dut.

Beti eduki dut argi kirolek bizi nahi nuela, modu batera edo bestera: eginez ez bazen, komunikatuz, baina ardatz gisa kirola hartuz beti. Azkar asko konturatu nintzen kirolari profesional izatea ikaragarri zaila dela, baina orain kirol kazetari gisa ari naiz lanean Euskadi Irratian, eta hori ere bada kirolek bizitzeko modu bat.

**Han egingo duzun lana, ordea, ez da izango irratikoa bezalakoa, ezta?**

Paperezko egunkarietan egiten denaren antzera landuko dugu informazioa han: gertakaria ez dugu momentuan emango, lan-keta eta hausnarketa bat egingo dugu aurretik. Bai behintzat blogera igo beharreko albistekin. Instagramen saiatuko gara, argazkien bitartez, uneko emozio hori islatzen.

Irratiak badauka emozioak zuzenean islatzearen magia hori. Ez da berdina kazetariak idaztea zerbaiti buruz kirolaria elkarrizketatu ostean, edo zuzenean beraiek esatea. Gero eta gehiago gustatzen zait galkorra den informazio hori, elkarrizketa motzak direla onenak irratian, horiek daukatela emozio gehien. Momentuaren arabera koak diren horiek, emaitza bat lortu eta berehala antenan sartzea, emozio hori transmititzea. Irratian gol bat zuzenean emateak, edo txirrindularitza etapa bateko ihesaldi bat kontatzeak pentsarazten dizu zu ere ari zarela ekintza hori egiten. Atera

egiten zaizu erreakzio hori baldin eta pasioz bizi baduzu egiten ari zarena.

**Kirol kazetaritzan garrantzia gehiegi ematen al zaie emaitzei? Nola ikusten duzu zuk?**

Nire ustez, hedabideok askotan irizpide horri jarraiki idazten ditugu albisteak eta egiten ditugu elkarrizketak. Emaitzek itsutzen gaituzte, eta kirolari baten atzean dauden elementuak, eguneroko lana, ez ditugu jartzen lehen planoan.

Imajina ezazu, adibidez, Riora joango diren euskal kirolariak ez dutela domina bakar bat ere lortzen. Gero erraza da egunkari edo irradi batetik kritikatzera, esatea ‘zeinen gaizki egiten diren gauzak’. Ados, agian ez dira behar bezain ongi egiten, baina ez da ahaztu behar Joko Olinpikoak mundu mailako kirol ekitaldi garrantzitsuenetako bat direla; baloratzen jakin behar da hori, eta analisisa ez mugatu soilik bertan lortzen diren emaitzetara.

Euskadi Irratian eta ni personalki, saiatzen gara ‘mass media’ delakoetan hainbeste jorrazten ez diren kirolei kanta ematen, eta, batez ere, protagonistei hitza ematen. Beti dago norbait elkarrizketatzeko, beti dago zerbait kontatzeko.

**Momentu estresanteak bizitzeko prest Rion? Irratian lan eginda, ohituta egongo zara honezkeroko...**

Lantaldeko kideok badakigu han egon bitartean denboraz justu xamar ibiliko garela askotan, tentsio unek ere biziko ditugula. Baina, era berean, esperientzia polita eta aberagarria izango delakoan nago, talde-lana funtsezkoa izango baita, koordinazioa... Elementu horiek lantzeak asko ikastea aukera emango digu.

Irratian ere bizitzen ditugu lehen aipatu ditudan egoera



Hainbat kirolean aritu izan da herritarra: tenisean aitarekin, txirrindularitzan, eta, gaur egun, atletismoan.

horietako batzuk. Askotan ito egingo zarela dirudi, baina azkenean beti ateratzen zara aurrera. Gogoratzen naiz iazko udan Euskadi Irratian hasi nintzen zalantza asko edukitzen nituela, ardura berriak hartzen hasi nintzen; esaterako, irratsaioak nik egiten. Zure buruari galdetzen diozu ea beteko duzun ordu kopurua, telefono konexioak onak izango ote diren... Denborarekin ohitzen zara erritmo horretara, eta azkenean, beti egiten dugu aurrera, modu batera edo bestera.

Egia da kirolen sailean daramagun erritmoa ez dela beharbada beste sail batzuen berbera, baina asteburuetan lau orduko irratsaio bat bete behar izaten dugu; Hiru Erregeen Mahaia, hain justu.

**Hitz egin dezagun Lasarte-Oriako kirolari gazteez. Euren lorpenek emango lukete lau orduko irratsaio bat betetzeko, baita gehiagorako ere.**

Gazte asko ari dira zeresana ematen diziplina desberdinetan. Jon Ander Puertas errugbi jokalaria, Hernanirekin Oho-

rezko mailan aritzen dena; Axier Arteaga pilotari profesionala ere hor daukagu. Puertasen zein Arteagaren aitek ere urratu zuten profesionaltasunaren bidea: Fran Puertasek eta Juan Mari Arteaga ‘Marak’.

Ezin ahaztu Eneritz Busto atleta, nazioarte mailan lehiatza iritsi zena iaz Calin, Iñigo Ibarburu igerilaria, Aizpea Arroyo gimnasta, Ander Bardaji eta Iraia Iparragirre Realeko jokalaria, eta aipatu gabe uzten ditudan beste hainbat.

Nire ustez, oso herri kirolaria da Lasarte-Oria; bultzatu egin beharko genuke hori. Eta are gehiago esango dizut.

**Bota.**

Kirolari oso onak atera dira eta ateratzen ari dira, baina uste dut maila are altuagoa izan daitekeela, baldin eta hobekuntzak ematen badira, instalazioetan batez ere. Gaur egun dagoen maila eta eskaria aintzat hartuta, txiki eta zaharkituta geratu dira hainbat gune. Adibide bat jartzearen, ez dakit Ibarburuk Espainia mailan dituen lehiakideek igerilekuko kaleak konpartitzen ibili behar izaten duten, herritarrak

egin astero-astero behar izaten duen bezala.

Aurrez aipatu dudan bezala, gure herria oso kirolaria da, eta sustatu egin beharko genuke. Baita ere emakumezkoen kirola. Nik atletismoaren esparrua ezagutzen dut [herriko LOKE taldean ibilitakoa da urte luzez, eta gaur egun Super Amara BAT taldearekin konpetitzen badu ere, Lasarte-Orian entrenatzen jarraitzen du], eta harrobian emakumezko gehiago dago gizonezkoak baino. Gimnasia erritmikoan ere hori gertatzen da, Ostadar SKTren saskibaloia alorra ere lan ederra ari da egiten...

Badakit klubek ahal dutena egiten dutela eskura dauzkaten baliabideekin; hori ere baloratu behar dugu. Musutruk ari dira gehienak, eta erraza da gero kritikatzera, baina ardurak eta erabakiak hartzea ez da batere erraza. Ea orain arte egin bezala jarraitzen duten lanean, pertsonak formatzen eta kirolari belaunaldi onak ateratzen. Azken finean, guk, kirol kazetariok, beharrezkoak ditugulako gure ogibidea egin ahal izateko, euren balentriak kontatu ahal izateko.



**Ondo pasa San Pedro jaietan!**



Bekokale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA

**ZATOZ GURE JAKI GOXOAK DASTATZERA!**

**Ondo pasa San Pedro jaietan!**



Ola kalea 2 - Lasarte-Oria-Tel. 943 36 27 68



The Best Chef taldea Sukaldean sortzaile lehiaketako sarituak

# “Ongi pasatzeko parte hartu genuen eta asko ikasi dugu”

Basque Culinary Center-en sukaldaritza ikastaro bat eskainiko diete

Lide Hidalgo, Lide Sanchez, Nahia Fabian eta Maren Urkizu lasarteoriatar gazteek Basque Culinary Center-ek Donostia 2016 Hiriburutzarekin batera antolatutako Sukaldean sortzaile lehiaketako irabazleentako batzuk ditugu. Haiek grabatutako 'Arroz beltza txipiroi eta almejekin' bideoak epaimahaiaren oniritzia jaso zuten. Basque Culinary Center-en izan zen saribanaketan haien platerak sukaldatu eta sukaldari famatuak ezagutzeko aukera izan zuten.

Nerea EIZAGIRRE

Basque Culinary Center-ek eta DSS2016eu-k gazteentzako sukaldaritza lehiaketa jarri zuten mar txan, 'Sukaldean sortzaile'. 12-16 urte bitarteko gazteek, aiton/amonon errezetak oinarritzat hartuz, bereganatu eta errezeta berriak asmatzea zuten helburu. Taldean errezeta berria sortu, grabatu eta bideo aurkeztu behar zen. Grabaketa guztien artean epaimahaiak bederatzi aukeratu zituen. Ekainaren 11an izan zen saribanaketa Basque Culinary Center-en eta bertan Lasarte-Oriako lau gazte osatutako taldea egon zen, The Best chefs. Lide Hidalgo, Lide Sanchez, Nahia Fabian eta

Maren Urkizuk osatzen dute taldea eta haiekin izan gara lehiaketari buruz gehiago jakiteko.

## Parte hartzea

Lehiaketari buruz ikastolan jakin zutela aipatu digute, “gelan ginen eta Basque Culinary Center-ek lehiaketa antolatzen zuela jakinarazi ziguten”.

Idea ona iruditu zitzaizkien kuadrilako hainbati lehiaketan parte hartzea eta bi talde osatu zituztela jakinarazi digute. “Kuadrilan hamar gara eta batzuk ez zuten parte hartu nahi. Zortzi ginen guztira eta zozketa bidez bi talde egin genituen”.



'The Best Chef' taldeak Basque Culinary Center-en bere platera sukaldatzeko aukera izan zuten.

I. URKIZU

## Izena eta errezeta

Ostean, taldearen izena eta errezeta erabaki zituzten.

The Best Chef “sukaldaririk onenak” izena jarri zioten taldeari Libe Sanchezek azaldu legez, “Whatsapp talde bat egin genuen eta izena jarri behar

genion. Momentuan hori idatzi nuen eta horrela utzi genuen”.

Errezeta ere inprobisatua izan zela jakinarazi digu Lide Hidalgo, “ez genekien zer egin eta BMra joan ginen. Arroza ikusi genuen eta hori egitea erabaki genuen”.

Lide Sanchezek aipatu duenez, “nire amak arroza era tradizionalan egiten du eta horregatik, saltsa eta txipiroiekin egitea erabaki genuen”. Gainera “arrandegian erosten ari ginela, gure ondoan amona bat zegoen. Guk ez genuen ezagutzen eta almejakin ere sartzeko esan zion oso goxoa geratzen baitzen. Eta horrela egin genuen”, aipatu dute.

## Bideoa

Erosketak egin ostean, probak egiten hasi ziren. “Lehenengo egunean egin

genuenean txipiroiekin izan genuen arazoa, gehiegi egin genituen,” azaldu du Lide Hidalgo.

“Almejekin arazo askorik ez genuen izan. Lehenengo aldia ez genituen ongi garbitu eta batzuk ez ziren irekitzen. Baina gehiago praktikatu genuen eta arazorik ez zigun eman”, aipatu du Nahia Fabianek.

Platera egiterakoan laguntzarik izan al zuten galdeztzean, “gauza batzuk egitean bai, baina gehiena guk egin genuen”, zehaztu dute.

Arazoak arazo, platera egiteko erraza dela onartzen dute, “gurea Basque Culinary-ko saribanaketan ikusitakoekin konparatuta oso erraza zen”.

Bideoa grabatu eta egitura-tzeko ere ez zuten laguntzarik izan, “gehiena guk grabatu genuen, baina Noraren ahizpak ere lagundu zuen”.

Baina bideoa montatzera-



**GOXOKIS GOXUA**

Ondo pasa San Pedro jaietan!!



Geltoki Kalea 9 behea • Tel.: 637 462666

Ondo pasa herriko jaietan!!



**Maria Luisa**  
ileapaindegi mistoa  
943 37 09 80



**Eneritz estetika**  
Deplazioa argizari hotz eta beroarekin  
Manikura eta pedikura  
Betileak tintatzea  
Aurpegi eta gorputz tratamenduak  
679 29 82 50

Pablo Mutiozabal 9 behea - 20160 Lasarte-Oria



ko orduan Marenen aitaren laguntza izan zutela onartu dute: "Bideo edizioa Marenen aitak egin zuen, bere kamara ona zen eta grabaketarako mugikorrak baino hobea zen. Gainera guk ez dakigu nola editatu. Hala ere guk aurretik nola izan behar zuen pentsatu genuen".

#### Sarituak

Aitortu dutenez, gazteek ez zuten sarituak izatea espero. "Marenen aitari emaila bidali zioten. Nahiaren urtebetetze eguna zen hurrengo egunean eta sorpresa eman nahi genion, baina ezin izan genuen gelako batek aurretik esan baitzion", azaldu dute.

"Ez genuen sinesten", aipatu du Nahiak. "Ongi pasatzeko egin genuen bideoa eta begira", adierazi du Lide Hildalgok.

"60 talde baino gehiagok parte hartu zuten eta gurea bederatz hoberenen artean aukeratu zuten", atxiki du Lide Sanchezek.

#### Basque Culinary Center-en

Honela, ekainaren 11n, Basque Culinary Center-en izan ziren haien sariak jasotzen.

Diploma, Basque Culinary

Center-eko mantala eta sari berezi bat ere jaso zuten. "Talde bakoitzarentzat bereziki prestatutako ikastaro bat eskainiko digute", azaldu du Maren Urkizuk.

Baina saria jasotzeaz gain, haien platera sukaldatu behar izan zuten gazteek, "bertako ikasleek lagundu ziguten gainera".

Eta sukaldari ezagunak ezagutzeko aukera ere izan zuten, sariak banatzen Martin Berasategui, Luis Irizar eta Jose Juan Castillo izan ziren, baita Mikel Lopez Iturriaga gastronomia kritikoa ere.

"Gomendioak eman zizkiguten sukaldatzen ari ginen bitartean", adierazi dute.

Eta, amaitzean, "Martin Berasategirekin egon ginen. Gu ta Gutarrak programako aurkezlea Julen Telleria ere egon bertan zegoen eta argazkiak atera genituen".

Bitxikeria bat ere aipatu digute: "Bideoan osagarri sekretu bat genuela esaten dugu eta bertan ginela neska batek galdetu zigun zein zen osagarri hori. Guk hori esan genuen ez genuelako espero aukeratuak izatea. Baina osagarri bereziak gogo eta maitasuna zirela erantzun genion.



Sukaldari entzutetsuak ezagutzeaz gain, BCC eta Donostia 2016ko zuzendarien iritzia ere jaso zuten gaztetxoek. I. URKIZU

Gogorik gabe egiten baduzu gaizki aterako da".

Hau guztiak gain, aukeraturako hiru errezeta koktelean dastatu ahal izan zituzten. Horietako bat taldearen errezeta izan zen. "Gure platerak sukaldatu zituzten baina bokadu antzera jateko, jendeak probatzeko. Baina gurea gozoagoa zegoen. Guk txokolatezko bola bat probatu nahi genuen, baina ez zuten egin".

#### Etorkizuna

Lauek sukaldaritzza gustuko dute baina Marenek aipatu

legez, "ez dugu pentsatu etorkizuneko ogibide bezala".

Lide Sanchezek sukaldaritzako programak gustoko ditu, "Master Chef eta horrelakoak". Marenek postreak egiten ditu. Nahia Fabianek eta Libe Hildalgok noiz behinak gauzak egiten dituzte.

Hemendik aurrera sukaldetan gehiago ibiliko direla aipatu dute, "ongi pasatzeko egin dugu eta asko ikasi dugu esperientzia honi esker".

Era berean, berriro ere, lehiaketara aurkeztuko liratekeela aipatu dute eta "telebis-

tan, irratieta, egunkarietan ateratzea ere oso berezia izan da", azpimarratu dute.

#### Eskerrak

Taldeko kideek familiei eta batez ere, Marenen aitari eskerrak eman nahi dizkiete.

Honetaz gain, ikastolari ere haien esker ona erakutsi diotela jakiarazi digute, "taldearen izena zuen diploma handi bat eman ziguten eta gero bakoitzari beste bat. Ez genekien zer egin harekin, baina ikastolan uztea erabaki genuen azkenean".



## Arroz beltza txipiroi eta almejekin

#### Osagaiak:

- Arroza
- Txipiroiak
- Almejak
- Txipiroi tinta
- Olioa
- Baratxuria

- Tipula
- Gatza
- Ardo Zuria
- Ozpina balsamikoa
- Jateko purpurina

#### Jarraibideak:

- Baratxuria eltzean bota olioarekin.
- Urre kolorea hartzen duenean arroza eta ura gehitu. Ondo nahastu.
- Bitartean, txipiroiak eta almejak garbitu.
- Arroza egina dagoenean sutatik kendu eta tipula moztu.
- Zartagi batean olio pixka bat bota eta tipula gehitu.
- Tipula frijitzean txipiroiak bota.
- Hauek mugitu eta ardo zuria bota.
- Txipiroiak egiteko gutxi falta

denean, almejak gehitu eta ireki arte utzi sutan.

- Txipiroi tinta baso erdi ur beroarekin nahastu eta arrozari bota. Dena beltza geratu arte nahastu.

- Azkenik, plateran zerbitzatu:

- Taza batean arroz beltza sartu eta plater baten kontra jarri. Taza kentzean dorre bat geratu behar da.
- Txipiroiak eta almejak jarri lagungarri gisa. Jateko purpurina bota hauei.
- Ozpina apaingarri gisa jarri.

**aldika**   
**produktu bereziak**

**ahatekinak  
 ehizak eta hegaztiak  
 bakailao gezatua  
 onddoak  
 marinatuak  
 olagarroa**

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 377089 [aldika@euskalnet.net](mailto:aldika@euskalnet.net)

Ondo pasa San Pedro jaietan!





# Sugarrek argitu zuten gau magikoa

## San Joan sua Andatza plazan egin zen, bigarrenez jarraian

**Bigarrenez jarraian, ekainaren 23an Andatza plazan piztu zen San Joan sua baliatu zuten herritarrek urteko gauza txarrak bota eta horiez ahazteko. Hori baino lehen, Erketzen eskutik, hainbat dantza egin zituzten plazan; udal korporazioko zenbait kide ere animatu ziren. Bestalde, Aire Garbia plataformaren deia erantzunez, hainbat herritarrek egin zuten protesta Zubietako errauste plantaren egitasmoaren aurka. Kartoizko erraustegi bat ere bota zuten sutara.**

### TXINTXARRI

**E** kainaren 23a egun ezin aproposagoa da urteko gauza eta oroitzapen txarrak San Joan suaren garretan erretzeko. Horixe bera egin zuten ehunka lasarteoriarrek egun horretako arratsalde-iluntzean zehar, Andatza plazan.

Bestalde, Aire Garbia plataformak deituta, hainbat herritarrek protesta egin zuten Zubietako errauste plantaren egitasmoaren kontra; maskara zuriak eraman zituzten soinean. 'Ez, ez, ez, errausketarik ez!' bezalako leloak aldarrikatu zituzten ekitaldian zehar.

### Udaletxetik Andatzara

Udaletxe zaharrean elkartu ziren Erketzeko dantzariak eta udal ordezkariak. Denek elka-

rrekin egin zuten bidea Andatzarantz. Urteroko usadioari eutsiz, dantza emanaldi ikusgarria eskaini zuten Erketzeko kideek, udal ordezkari batzuk ere bertan zirela. EH Bilduko Pablo Barrio eta Leire Elizegi – maskara zuria jantzi zuten euren ere –, EAJko Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki eta Lasarte-Oriak Ahal Du-ko Alicia Garcia eta Arkaitz Naya aritu ziren. Kalejira jendetsu batekin amaitu zen emanaldia; hainbat herritarrek hartu zuten parte horretan.

### Urteko gauza txarrak, sutara

Jesus Zaballos alkateak piztu zuen sua. Horren ostean, herritarrek pauso bat eman zuten aurrera, sutara urteko gauza txarrak botatzeko. Apunteak, liburuak, eta, ares-

tian esan bezala, kartoizko erraustegi batek ere egin zuten hegan garretara bidean. Aire Garbiako kideek pare bat buelta eman zituzten plazan zehar erraustegia bizkarretan, aldarrikapenak egin bitartean, eta sutara jaurti gero. Txalo artean amaitu zuten ekitaldi sinboliko hori.

Urtero lez, sinbolismoz betetako ekitaldia izan da aurtengo San Joan sua. Bertako garrak piztearekin batera, herritarrek ziklo berri bati ekin diote: uda iritsi da honezkeroko, eta baita San Pedro jaiak ere. Blusak armairuetatik ateratzea eta jaiez ahalik eta gehien gozatzea izan daiteke ziklo berri hori modu ezin hobe batean has- teko plana.



Herritar ugari urteko gauza eta oroitzapen txarrak bota zituzten San Joan sutara.



Jesus Zaballos alkateak piztu zuen San Joan sua.



Erketz dantza taldeko kideek emanaldi ikusgarria eskaini zuten.



Aire Garbiak deituta, hainbat herritarrek egin zuten protesta Zubietako errauste plantaren egitasmoaren aurka.

**ETXEZARRETA**  
HARATEGIA-URDATEGIA

**EUSKAL OKELA**  
CARRÉ DE VACUO DEL PAYS VASCO

## ETXEZARRETA HARATEGIA

• Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria



Ondo pasa San Pedro jaietan!

Hipodromo Etorbidea, 2 - Tel. 943 361 379 / 610 441 544 - LASARTE-ORIA



# San Pedroetarako motorrak berotzen

Ekintza ugari egin dira herrian egunotan, aurtengo jaien aurrekari gisara



Biyak Bat adinekoen elkarteok hainbat ekintza egin dituzte San Pedro jaien aurrekari gisa, urtero bezala. Pasa den astean mahai jokoetan aritu ziren egoitzan bertan. Horrez gain, Isla Plazan, urteroko jokoetan aritu ziren: igela, toka, botea... Ondoren, berriro ere egoitzan, sariak banatu zituzten. Bestalde, atzo arratsaldean gimnastika erakustaldia eskaini zuten Udal Kiroldegian.



Ekainaren 21a musikaren eguna izan zen herrian. Udal Musika Eskolako ikasleek emanaldia eskaini zuten; Brigitarren komentuan berriz, txistuaz, organoaz eta soprano ahotsaz gozatu ahal izan zen.



M. Berasategi Kafeak  
1961  
LASARTE-ORIA



50  
te eta infusio  
baina gehiago  
auheran!

**TE ETA INFUSIOAK**

- TE EZBERDINAK:
  - Txuria, berdeak, gorria, beltza...
  - Breakfast, Earl-grey, Ceylan...
- INFUSIOAK
  - Melisa
  - Tila
  - Kamamila
  - Anixa
  - Makilgoxo
  - Sagarra
  - Rooibos
  - Menta
  - ...

**KAFE ARABIKOA**

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA
- ETIOPIA



**Gure kafeaz  
betetako kapsulak,  
Nespresso kafe  
makinekin bateragarriak**

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316  
20160 LASARTE-ORIA • [www.cafesberasategi.com](http://www.cafesberasategi.com)

*Ondo pasa herriko jaietan!*





Euskal dantzen ikuskizun bikaina eskaini zuen Erketz EDTK larunbat arratsaldean, Okendo plazan. Adin guztietako dantzariak aritu ziren, ikasturte osoan zehar ikasitakoa plazaratzen.



Zero Settek ere eskaini zuen emanaldia larunbat arratsaldean.

Atzo arratsaldean, Sorgin Jaien bezperan, primeran pasa zuten hainbat gaztetxok Okendo plazan, hainbat jokotan arituz.



Buruntzaldea IKTKo igerilariak podiumera igo eta igo aritu ziren Euskal Herriko Udarako txapelketan. Iñigo Ibarburuk (ezkerrean, berdez) hainbat domina eskuratu zituen. Nahia Zudaire garaile izan zen alebin mailako sailkapen orokorrean.

Aimar Sukunza infantila (erdian) Gipuzkoako triatlói txapeliduna izan zen.

**EPEL**

Ondo pasa San Pedro jaietan!

**TXERRI BELARRIA**  
etxeke berezitasuna

**AUKERA IZUGARRIA**

- Pintxoetan
- Razioetan
- Ogitarkeoetan
- Plater konbinatuetan

Goikale 1 • Tel: 943 36 27 01 • LASARTE-ORIA

**ANTONIO URRUZOLA**

ZURGINTZA eta EBANISTERIA

**AROZTEGIA**

ONDO PASA FESTETAN!

Etorzaitez erakusketa ikustera!

Asteasuain polig., 3. pabilioia  
20170 • USURBIL (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa: 943 376415  
Mobila 687 845597

1.999 TIK

**ABREU**  
Bazarra

Ondo pasa San Pedro jaietan!

www.facebook.com/pages/Bazar-Abreu

Geltoki kalea 2,  
LASARTE-ORIA  
Tel: 943 36 58 46



**Dolanda**

Taberna - Jatetxea

Dastatu etxeke berezitasuna, legatza "JAIZKIBEL" erara

Ondo pasa jaietan!

943 11 67 20  
Pintore kalea, 1 - LASARTE-ORIA

- Pintxoak
- Razioak
- Bokatak
- Asteburuko menuak



# Elkarrekin Ahal Dugu garaile

## Hauteskunde orokorren bigarren itzulian antzeko emaitzak gurean

Parte hartzea gurean 4 puntutan jaitsi zen arren, %68,27, Elkarrekin Ahal Dugu gailendu zitzaion PSE-EEri gurean 2.822 bozka eskuratuz. Hala ere, abenduan Ahal Duguk 61 bozka gehiago jaso zituen. Orokorrean, hauteskunde igande lasaia izan zen herrian.

**TXINTXARRI**

Igandean burutu zen hauteskunde orokorren bigarren itzulia. Abenduaren 20ko deialdiarekin alderatuta antzeko emaitzak eman ziren gurean.

Berriz ere, PSE-EE historikoki lehenengo indarra izan dena herrian, bigarren postuan geratu zen bozka batzuk ere galduz.

Horrela, Elkarrekin Ahal Duguk 2.822 bozka eskuratu zituen eta PSE-EEk 2.493, abenduan baino 48 gutxiago.

EH Bildu izan zen herrian hirugarren indarra 1.378 bozkaekin eta jarraian, EAJ 1.233ekin, PP 1.056ekin eta C's 407ekin.

Beste alderdi batzuetara joan ziren 150 bozka, zuriak


74 izan ziren eta nuloak berriz, 54.

**PPren igoera**

Abenduko datuekin alderatuta alderdi guztiek PPK izan ezik izan zuten boto galera. EHBilduk 87 bozka galdu zituen, EAJk 100 eta C's-ek 79. PPK aldiz, 5 bozka irabazi zituen.

Parte hartzearen datua ere jaitsi egin zen gurean Euskadi osoan egin bezala. Abenduan bozka ematera deituta zeuden herritarren %72,42 joan zen bozkatzera eta oraingoan berriz, %68,27.

Igandean normaltasun osoz burutu zen Hauteskunde eguna. Goizeko 9:00etan zabaldu ziren mahaiak eta 20:00ak arte izan izan zuten herritarrek aukera bozka emateko inolako arazorik gabe.



# 'Berdintasunaren alde elkartuta' kanpaina

## Udalak karpa informatibo bat jarriko du gaur, 19:00etan, Okendo plazan

'Berdintasunaren alde elkartuta' lelopean, Udalak azpimarratu nahi du festak iraun bitartean ere genero berdintasunaren alde egin behar dela lan. Besteak beste zereginak banatzearen garrantzia azpimarratu dute.

**TXINTXARRI**

Aipatu kanpaina honen baitan, Udalak karpa informatibo bat jarriko du gaur Okendon, 19:00etan. Bertan, zereginak banatzearen garrantzia kontzientzia-

tuko dituzte herritarrek. Txapak eta preserbatiboak ere banatuko dira; "festak berdintasunean izatearen alde egin behar dela lan gogoraraziko digute", zehaztu du Udalak.

Jesus Zaballos alkateak, Zerbitzu Publikoetako zine-

gotzi Lourdes Acevedok eta Emakumeen Zentro Zibikoko arduradunek aurkeztu zuten 'Berdintasunaren alde elkartuta' kanpaina.


"Festetan ez dugu erlaxatu behar; oroituz behar dugu gaintzekoekiko errespetua dela araua, guztiok gozatu dezagun jaietz", nabarmendu zuen Zaballosek.

Acevedok zehaztu zuen "lanketa transbertsala" burutzen ari direla "Udaletxeko esparru guztietan", eta saiatu-




ko direla herriko elkartengana ere iristen. Festek iraun bitartean, 'Berdintasunaren alde

elkartuta' lelodun pankarta bat ikusi ahalko da Udaletxeko balkoian.




943372283 Nagusia 17 LASARTE-ORIA



KIOSKO DIGITALA

**Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN**  
**KARRETEEN errebelatua**  
**EZKONTZETAKO erreportajeak**  
**ESTUDIOKO erreportajeak**  
**makina DIGITALAK**  
**30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK**  
**Markoak jartzeko tailerra**

SAN PEDRO JAIK  
2016





# 4 milioi euro inbertsioak egiteko

2016ko aurrekontuak onartu ziren atzo egindako ez ohiko batzarrean

Azken urteetako aurrekontu potoloena onartu zuen batzarrean. Guztira 25 milioi baino gehiagoko aurrekontua da. PSE-EEK eta Lasarte-Oriak Ahal Duk alde bozkatu zuten, EAJko zinegotziak abstenitu ziren eta EH Bildu kontra azaldu zen. PPko ordezkariak ez zuen parte hartu batzarrean.

## TXINTXARRI

**A**urtengo aurrekontua "udaletxeko ogasun saillean dagoen pertsonal arazoa dela eta oso berandu aurkeztu da" aipatu zuen Jesus Zaballo alkateak. Hala ere, batzarrean ostean pozik zegoen honek izan duen babesarekin. 25 milioiko aurrekontua izango da tartean hainbat lur sail saltzea espero delako Zabaleta Berrin eta Zatarain-Kaxkarron.

## Inbertsioak

Zuzenean inbertsioetarako 4 milioi euro izango ditu udalak. Besteak beste, Orian zebra bidea eta botoidun semaforoa jarriko dira gunea oinezkoentzat txukuntzeko. Buenos Aires-Aldapa gunearen urbanizazioa egingo da, haur parkeak

estaltzeko diru partida gorde da, Sasotako bost plazen urbanizaziorako proiektuak egingo dira, Jaizkibeletako hiru plazen erauzketarako proiektua eta San Martzial eta Uzturre urbanizatzea gauzatuko da.

Andatza 4 parean ranpa bat egingo da eskaileren ondoan, Goikaleko konponketak egingo dira, kaleak asfaltatzeko beste partida bat gorde da baita herriko argiteria berritzeko ere. 100.000 euro bideratuko dira herriko parkeetako jolasak aldatzera.

Jubilatuen elkarteko leiho guztiak aldatuko dira eta honen larrialdietarako irteera egingo da alboko lokal bat erositara. Pablo Garaikoetxea eta Andre Joakina Eneako leihoak ere aldatuko ditu Udalak.

Kirolaren esparruan, hainbat konponketa lan egingo



dira kiroldegiko estalduran, korrika egiteko zintak eta spinning gelako bizikletak erosiko dira. Michelingo kiroldegien proiektua egiteko dirua gorde da baita Atsokabarreko futbol zelaiarena egiteko ere. Egun Michelingo garajeetan dauden ur filtrazioak konponduko dira.

Udaltzaintzat auto berri bat erosi eta Mercero gunea txukunduko da, erakusketa eta hitzaldi gelak behar dituzten baliabideekin hornituz. Pertsonalari dagokionez, barne sustapeneko bost udaltzain kabo eta administrazio elektronikoa eta herritarren arretarako teknikari bat izendatuko dira.

Bestalde, udal lege berriak aipatzen duenez, EH Bilduk liberazio erdia izatetik osora izatera pasako da oposizioko talde handiena delako. Horrela Pablo Barrioren jarduna luzatuko da.

## Diru laguntzak

Udalak ematen dituen diru laguntzei dagokionez, guraso elkarteei bideratutako diru laguntzak igo egin dira, Aterpearena ere bai, enplegua sustatzeko bi laguntza lerro berri martxan jarri dira eta Gizarte Zerbitzuetan ere beste laguntza lerro bat jarri da pobrezia energetikoari aurre egiteko.

Orokorrean, alkateak nabarmendu du murrizketarik

gabeko aurrekontua izan dela eta aurreko gobernua martxan jarritako lan ildoei jarraipena eman diela. Aurrekontu hauentzat 28 emendakin proposatu dituzte alderdiek eta hauetatik, 4 kendu dira eta 5 onartu dira gainontzekoak ezetsiak geratu direlarik.

Lasarte-Oriak Ahal Du taldeak batzarrean botoa aldatu eta alde azaldu zen gobernua gainontzekoen proposamenak txertatzeko egindako ahalegina aitortuz eta 2017koetan Basaundiko berrantolaketa sartzeko konpromisoa eskuratuta.

EH Bilduk kontrako bozka eman zuen batzarrean gobernua "inolako ahaleginik ez duelako egin gurekin adostasuna bilatzeko". Horretaz gain, etxebizitza politikarekiko erreparazioak azaldu zituzten.

EAJk berriz, abstentzioa eman zuen masa salarialaren muga gaintu delako eta kontratazioak egiteko legea zortza delako esparru honetan. Udalak ez du legea beteko. "Honek eragiten du aurrekontua inpugnagarria izatea".



**Gure herriko autobusak**  
*Azkarra, segurua eta eroso*



*Ondo pasa herriko jaietan!*

**2014 Bikam**  
euskararen karitate zuzendaria


**Tel.: 943 361 740 • www.tsst.info**

# ERRAUSKETARIK EZ EZ HEMEN, EZ INON!



Hipodromo Etorbidea 3, LASARTE-ORIA

*Ondo pasa herriko jaietan!*





## Zorion agurrak



**Mario**

Zorionak sagutxo!! 6 muxu handi handiak famili guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!!



**Olatz**

Zorionak zure zortzigarren urtebetetzean famili guztiaren partetik. Musu pila bat.



**Alex**

Zorionak bihotza!! 2 urte zure trastadekin, egunetik egunera gehiago maite zaitugu. Papa, Mama eta Kenai



**Ekain**

Zorionak Ekain!! 6 urte maitia! Etxeko bihotza zara. Ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Muxu erraldoia familiaren partetik.




**Nahikari**

Zorionak marisorgin azkenean bete dituzu 6 urte!! luju!! Milaka muxu goxogoxo. Amatxo, aitatxo, Lur, amona...



**Asier eta Maria**

Zorionak bikote etxekoen partetik!!!



**Alvaro**

Zorionak txapeldun zuren 8. urtebetetzean. Muxu asko familiaren partez. Maite zaitugu.



**June**

Zorionak maitia! Txokolatezko 10 muxu familia guztiaren partetik.



**Asier**

Zorionak Asier!!!!!! 8 muxu handi handiak zure aitatxo, amatxo eta Iratiren partetik!



**Markel**

Zorionak bonbon!!!! Txokolatezko muxu goxoak famili guztiaren partetik. Muuuuuak



**Izaro**

Zorionak printzesa, lau urte!! Maite zaitugu, aita, ama eta Luna.

## Herritarren txokoa

### Kiroldegiko ordutegia jaietan

San Pedro jaiak direla eta, Udal Kirol Zerbitzuak jakin arazten du honakoa izango dela egun hauetako ordutegia. Gaur, ekainak 28 goizez egongo dira irekita. Bihar ekainak 29, San Pedro eguna eta etzi, ekainak 30 kirol instalakuntzak itxita egongo dira.

### Udako ordutegia kiroldegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 bitartean irekia izango

da. Kiroldegia, 7:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna: 9:00 - 12:00 eta 17:00 - 21:00, zerbitzua erabiltzeko alde aurretik -gutxienez ordu 1, gehienez 24 ordu- eskatu behar da kiroldegiko atarian.

Larunbatetan eta jai egunetan 09:00etatik 13:00etara erabili ahalko dira instalakuntzak eta igandeetan itxita egongo da. Sauna itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tartetan erabili ahalko da. Larunbatetan goizez izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandetan itxita egongo da.

**Zuen oharrak jarri, kekek adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**  
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.eus

## Eskutitza

### Xumela 10 urte, 11 kantu eta bizipoz

"2.006ko Udazkenean..." dio orain 10 urte Xumela korua sortu zenean asmatu genuen lehen kantuak.

"XUMELA" izena, Xumeak eta Lasarte-Oriarrak garelako. Lagunartea egin eta Bizipoza partekatzea ziren gure helburuak, gure herriari kantuaren inguruan euskarazko bilgune berri bat eskaintzea. Eta haserako 35 lagun haiek 70 gara egun, astelehenero Txapas nekaezinaren laguntzarekin kantari alai aritzen garenak.

Haserako lotsak astindu eta ikasiz joan gara urtetik urte eta gure herriki-deen bihotzak irabazi ditugula sentitzen dugu pozik.

Aurten, 20tik gora saio eskaini ditugu batean eta bestean; Euskal Jaiak, Herrigorarekin Faltzesen, Santo Tomas, Olentzero, Harresi, Santa Ageda, Misioen alde Brigidetan, Atsobakarreko egoitzan, Gure Esku Dago, Sare, Galiziarrei ongi etorria eginez, Elebeltzeko gazteekin, Semblante Andaluzekin, Baztanen, Anoetan, San Pedrotan, Haur Txokoetako haurrekin... Ateak eta bihotzak zabalik ditugu denontzat eta Lasarte Oria euskalduna eta alaia maite eta bizi dugu. 10. Ikasturtea amaitzear da eta

afari eder bat egin dugu ospatzeko.

Irailean, haurren ilusio berdinarekin elkartuko gara berriro, eta zuek denok ere gonbidatuta zaudete abentura eder honetan parte hartzera... Aupa Xumela eta Gora Bizipoza!

XUMELA KORUA

## San Pedro Jaiak txintxarri.eus-en

Jarraitu San Pedro jaiak txintxarri.eus orrialdean eta sare sozialetan. Argazkiak, bideoak, jaietako berriak... denarik izango dugu gure orrialdean, baita zure argazkiak zintzilikatzeko aukera ere.

### TXINTXARRI-n zure argazkiak

Txintxarri.eus-en argazkiak atalean sartuta "igo argazkiak!" aukera aurkituko duzue. Hori bai, lehenengo aldiz sarterakoan erabiltzailea erregistratu beharko da, pasahitza eskuratzeko. Hauekin sartu eta argazkiak igo eta kudeatzeko lagungarri izango zaizkizuen argibideak aurkituko dituzue jarraian.

Baina ez da hau jaietan atera dituzun argazkiak TXINTXARRI-n argitaratzeko modu bakarra. Zure argazkiak txintxarri@txintxarri.eus helbidera bidaliz gero edo 688 68 35 10 zenbakira WhatsApp bidez ere argitaratuko ditugu.

Gainera, astelehena baino lehen jasotzen ditugun argazkiak uztailaren 4an, San Pedro jaietako argazkiekin osatutako TXINTXARRI berezian argitaratuko ditugu. Animatu eta parte hartu!

 *Ondo pasa festetan!*

**Inprenta - errotuluak - Web orriak**

Bizker inpresio digitala - Geltoki kalea, 9  
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)  
943 362 061 - bizker@bizker.es

 Haritza  
Joxean Diaz de Guereñu

 Ondo pasa San Pedro Jaietan!!!

Osteopatia |  
Kirol eta Terapia Masajea |  
Linfa Drainatzea |  
Reiki |

Teléfono: 605.75.96.35  
Urko Plaza 1, Behea. 20160 Lasarte-Oria  
www.haritzaterapiak.com

**INFORMATIKA**  
**MARTINEZ MULTIMEDIA**

 Ondo pasa San Pedro jaietan!  
Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behea - Tel/faxa: 943 36 05 91  
Lasarte-Oria



# Zein leiho jarri erabakitzeko orduan zalantzak dituzu ?

Materialak, prezioak, zaratak, kristalak, tenperatura, hezetasuna, haizea... Dena da garrantzitsua eta zuk emaitzak ikusi nahi dituzu zure etxerako leiho hoberenak zeintzuk diren jakiteko.

**Orientatuko zaitugu**  
inoiz egin bezala



**ALCAR**  
VENTANAS

Tel: **943 37 78 68** tienda@ventanasalcar.com  
ventanasalcar.com facebook.com/VentanasAlcar

**ERAKUSKETA** Plaza Oriamendi, 2 (Lehengo Doble J) 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa  
**TAILERRA** Ibaiondo, 4 semisotano 5-A 20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa



**Jai**  
ahaztezinak  
**igaro!**




**2 ETA 3 GELAKO ETXEBIZITZAK**  
**4 GELAKO ATIKOAK, GARAJEAK ETA LOKALAK**

**SALGAI!**



 **ZUBIEDER**  
CONSTRUCCIONES

 **609 000 140**

PROMOCIONES LANONDO, S.L.  
**LANONDO**



RPS 233/13



20 urtetan zehar, gustura dauden 38.000 paziente baino gehiago  
Letra txikirik gabeko aurrekontuak. Informa zaitez!

**ONDO PASA JAIETAN!**

**943 36 63 77**

Lasarte - Oria  
Ola Kalea, 10

Tolosa  
San Frantzisko, 39

Elgoibar  
San Bartolome, 22